



**Beasain:
Euskara
Biziberritzeko
Plan Nagusia**

Aizkorriko lagunen eguna



**Kirol eskaintza:
Beasaingo triatloia
Ordiziako raid-a
Zegamako maratoia**

**Pako Aiestaran
Valentziako
prestatzaile fisikoa**

publiadk[®]
publizitatea - publicidad



**BANCO ^{DE}
VITORIA**

Zure hipoteka astuna egiten bazaizu Banco Vitoriara aldatzeko aukera daukazu gasturik gabe

Gainera, zure nomina eta hileroko bi errezibu
Banco de Vitorian urtebetez helbideratzeagatik
bakarrik, doan jasoko duzu

Canal Satélite Digital

Canal+ekin, eta ez duzu galduko:

- Futbolik onena.
 - Zinerik onena.
 - Haur-programaziorik onena (Disney Channel)
- Gainera, lehen urte osoan:

- Hilero 22 besterik ez duzu ordainduko (%40ko beherapena).
- Hilean bi pelikula ikustea 1 kostatuko zaizu (%87ko beherapena).
- Futbol Txapelketako lau partidu doan ikusiko dituzu.

SATÉLITE
CANAL DIGITAL

Kale Nagusia, 35 • 20200 BEASAIN • Tel.: 943 160 766



GARMENDIA Tejas y cubiertas S.L.


VACSOL - WR^R TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**OHOL ETA ALTZARIEN
TRATAMENDUA**

Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

**AURREKONTUAK
NEURRIRA**



Maiatz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxa: 943 160 842

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)
124 posta-kutxa ORDIZIA
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
E-mail:
goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu
Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Joxan Auzmendi eta Edurne Huesa.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Uztailak 6:

Beasaingo II. Triatloia, Arriarango urtegiaren inguruan

Beasaingo Antzizar Triatloi Taldeak antolatuturik, uztailaren 6an, larunbatean, arratsaldeko 4etan, Beasaingo II. Triatloia jokatu da, Arriarango urtegiaren inguruan. Gipuzkoako txapelketa izango da. Igeriketako proba, 1.500 m. Arriarango urtegiaren bertan egingo da. Bizikletako proban, 38 km., Ormaiztegi-Lierni-Zegama joan-etorria egin beharko dute. Korrikako proba azkenik, 10 km. Arriarango urtegiaren inguruan.

Iazko ibilbide berbera izango da. 100 lagun inguruk hartu zuten parte lehenengo edizioan. Gizonezkoetan Asier Bilbao gernikarrak irabazi zuen eta emakumezkoetan, Ane Iñarritu gasteiztarrek. "Iaz egin zutenek, proba oso gogorra, baina polita dela esan zuten. Jendea nahiko gustura gelditu zen", dio Etor Mendia, Antzizar Triatloi Taldeko kideak. Emaku-

mezkoek eta gizonezkoek, proba berdina egin beharko dute. Sariak ere berdinak izango dituzte.

Aurten partaidetza bikoiztea espero dute antolatzaileek, iaz Autonomia Arteko Espainiako Txapelketa jokatu baitzen egun berean. Eguraldia ere txarra izan zuten.

Triatloi kirola indarra hartzen ari da berriz ere. "Garai batean modan egon zen, gero beherakada izan zuen eta orain berriz ere, badirudi goraka doala. Aurten proba gehiago antolatu dira eta horrek eragina du. Izan ere, urte guztia bi proba mugatzeko zaila da jarraitzea. Motibazioa falta izaten da. Aurten martxotik maiatzera duatloi probak egon dira eta orain abuztura bitartean, triatloiak izango dira. Azken batean jendea lehia gus-tatzen zaio", dio Etor Mendiak.

**Goierritarra Goierrikan jaso nahi dutenenentzat,
posta gastuak ordaintzeko tarifak:**

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Josu Lopez presoa gose greban

Beasaingo presoak gose greban dago Frantziako Fresneco kartzelan, Espainiaratu nahi dutela salatzen. Josu Lopezek uztailaren erdian amaitzen du Frantziak ETA kidea delakoan ezarritako kartzela zigorra. "Espainiaratzeak tortura jasan behar izatea esan nahi duela-ko", Beasainen hainbat ekimen eta firma bilketa egiten ari dira Espainiaratzea salatu eta bere askatasuna eskatzeko.

Ander Geresta epaitua

Gabiriarra Parisko epaitegian epaitua izan zen ekainaren 26an. ETako kide izan eta atxiloteta unean, Bordelen, poliziari tiro egitea leporatzen diote.

Juan Mari Olanoren estradizioaren alde

Paueko Auzitegiak Garzon epaileak egindako Juan Mari Olanoren estradizio eskaria onartu zuen ekainaren 28an. Olanoren abokatuak errekurtsioa aurkeztu du. Amnistiaren Aldeko Kide izateagatik eskatu du Garzonek estradizioa.

'Eman urratsa, Eugenio Etxera!' ekimen arrakastatsua

Ekainaren 16an, Ordizia-ko Eugenio Etxera Plataformak 'Eman Urratsa, Eugenio Etxera' ekimena burutu zuen, Eugenio Irastorza presoaren askatasuna eskatzeko. Ordiziarrak zigorraren hiru laurdena 1995ean bete zuen eta legeak dioenaren arabera, kalean egon beharko lukeela aldarrikatzen du Eugenio Etxera Plataformak. 22 urte daramatza kartzelan Irastorzak.

Lekukoa pasatuz, Altamira auzotik plazara bitartean, ibilaldia egin zen Ordizian. Herriko 28 talde, elkarte eta erakunde ezberdinek bat egin zuten ekimenarekin. Dena den, azkeneko unean, Elkarrikoak ez ziren ekimenean izan, antolatzaileek jakitera eman dutenez. Bero izugarria egin zuen igande arratsalde hartan.

Ekitaldiaren amaieran, Ordiziako Patxi Zubizarreta idazleak idatzitako testua irakurri zen.

Aldi berean, Eugenio Etxera Ekimenekoek, Ordiziako EAJ, EA eta IU-EB alderdi politikoei idatzitako eskutitza ere irakurri zuten. Zera zioten eskutitzean: "Giza eskubideen deklarazio instituzionalaren" irakurketa egiten



duzuenean, herri honetan pertsona guztien giza eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatzen dugu. Bien bitartean, ordiziar baten oinarritzko eskubidea egunero zapalduzik daudenean, muzin egiten diozue gaiari. Eugenio Irastorzak, 22 urte bete ditu Estatu Espainiarreko espetxeetan. Horietako 5 urte isolamenduan (gainontzeko preso politikoekin harremanik izan gabe), 2 alditan basatiki jipoitua izan da funtziona-

rioen eskuetan eta gainera 1995. urtetik bahituta daukate 1.000 kilometro-ra, zigorraren 3/4 beteta izan arren. Idatzi honen bitartez, jakinarazi nahi dizuegu; Eugenioem oinarritzko giza eskubideak egunero zapalduta jarraitzen duten heinean, herrian, udaletxean eta gizartearen dauden eragile ezberdinekin lanean jarraituko dugula, eskubideen eguneroko urraketa hauen aurrean".

Olagi
Sagardotegia



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

© 943 88 77 26

ALTZAGA

Goierritarra - 224

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Poyamen kokaleku berria

Orain arte Beasainen kokatua dagoen Poyam kooperatiba, Idiazabalgo Amporen ondora eramango dute, Ampo kooperatibak antolaketa eredu berriari heldu baitio. Instalazio berriak 30 milioi euroko aurrekontua izango du. Poyamek balbulak egiten ditu.

Aralar inguratuz, barnetegi ibiltaria

AEK-k (Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak) eta Sakanako Mankomunitateak, uztailaren 22tik 30era, euskara ikasteko oinezko barnetegi berezia antolatu du, Aralarren inguruan. Gipuzkoa eta Nafarroa aldeko Aralar zeharkatuko du barnetegiak. Goierriera ere iritsiko da barnetegia. Egunean hiru ordu inguru oinez egingo dituzte, beste hiru ordu eskoletan eta bidean gelditzen diren herriek eskaintzen dituzten baliabideak aprobetxatuz ekintza didaktikoak egingo dituzte. Bi mailatan sailkatuko da barnetegia: urrats ertainekoak (4. edo 5. urratsekoak) eta goi mailakoak (7. eta 8. urratsekoak). Izena emateko epea uztailaren 11n amaituko da.

Segurako dantza txapelketa

Hernaniko Parrondo anai-arrebek irabazi zuten ekainaren 15ean eta 16an Seguran jokaturako Euskal Herriko dantza txapelketa. Bigarrenak, Kimetz Larrañaga eta Eneritz Epelde izan ziren.



Mikel Gaztañaga, Espainiako txapeldun

Itsasondoko txirrindularia Espainiako txapeldun dugu, afizionatuen mailan. Ekainaren 30an Salamancan profesionalekin batera jokaturako proban, laugarrena izan zen Caja Rural taldeko Mikel Gaztañaga, Guillamon, Olano eta Perdigueroren atzetik.



Euskadiko raid txapelketa, uztailaren 14an, Ordizian

Lazkaomendiko Alarpe zalditegiak antolatuta, uztailaren 14an, goizeko 8etan hasita, iraupen luzeko zaldien erresistentzia lasterketa jokatuko da Ordizian. Anexotik abiatuko da proba, bukatu ere bai. Handienak goizeko 8etan hasiko dira eta txikienak 9,30etan. 80 eta 44,5 kilometroko ibilbideak izango dira. Albaitarien kontrolak 3 izango dira: 2 Zaldibian eta bestea hasieran eta bukaeran. Ordiziatik Zaldibia aldera, Lazkaoetxetik, Arkaka eta Lazkaomendiko Intxausti iturritik bueltan berriz ere Ordiziara itzuliko dira parte hartzaileak.



'Gipuzkoako Hiri Hondakinen 2002-2016 kudeaketa plan orokorra'

Sasieta Mankomunitateak antolaturik, uztailaren 1ean, Beasaingo Udaletxeko batzar aretoan, 'Gipuzkoako Hiri Hondakinen 2002-2016 Kudeaketa Plan Orokorra'ri buruzko jardunaldi-monografikoa izan zen.

Goierri-Lapurdi-Xareta lankidetza hitzarmena

Ekainaren 29an, Goiturrek antolatuta, Goierriko agintari politikoek bidaia egin zuten Lapurdi eta Nafarroara. Goierri-Lapurdi-Xareta lankidetza hitzarmena sinatu zuten eta hemendik aurrera, Lapurdiko eta Xaretako (Sara, Urdazubi, Ainhua eta Zugarramurdi herriek osatutako elkartea) informazioa Goierriin eskuratu ahal izango dugu, eta alderantziz. Bien bitartean, inguru horietako turismo ekimenen berri jaso zuten goierritarrek.

Ordizia Kirol elkarteko zuzendaritza-batzordearen jakinarazpena

Zuzendaritza-Batzordea osatzen duten Ordizia KEko hainbat kategoriatako jokalarien gurasoek eta laguntzaileek lortu dute elkartearen alde lan egiteko gogoak bultzaturik, garai bateko taldeek lortu ohi zituzten sariak berreskuratzea eta batez ere, guztiok nahi genuen giro atsegina eta jokalarien, teknikarien, batzordekideen eta futbolaren zaleen arteko batasuna sortzea eta Ordizia KEko plantilan sartzeari ordiziar gazteen helburu bilakatzea, elastiko urdina soinean darabiltela Euskal Herriko estadioetan barrena.

Baita azpimarratu nahi dugu ere, lorpenak, ongi merezia duelakoan, talde bat preferentean eta lehen erregionalean beste bat izango dituela OKEk datorren denboraldian, pasadizo ezezaguna orain arte Elkartearen historian.

Hala ere, batzordea osatzen dugun guztiok, atera ezin dugun arantza daramagu. Gure ustez, OKEko kudeatze-lanetan ezin izan dugulako orain arte lortu, ez gure ardurarik ezagatik, ordea, udalbatzako kideak kontzientziazteko gauza izatea, beste gai batzuetan gertatu den bezala, aurrerabiderako aukerak gal ez ditzagun.

Zertaz ari garen argi dago, futbolari eta oinarri-kirolari laguntzeko ditugun azpiegitura negargarriez, hau da, Anexo zelaiaz, eta esan beharrik ez dago bere inguruneaz, udaletxetik ezer berezirik egiten ez den bitartean, zaborra, kristal txikituak eta burdin herdoilduak uzteko eta metatzeko eremu bihurturik. Honen guztiak berekin dakarren arriskuarekin, bertara kirola egitera edo besterik gabe pasatzera hurbiltzen diren haur, gazte eta helduen segurtasunarentzat.

Behar-beharrezkoa da, beraz, Altamira Estadioko Kirolgunearen inguruan idatzitako proiektu orokorraren lehen faseari ekitea, gaur Anexo dagoen eremuan belar artifizialeko zelai berria eraikitzea, alegia. Eta behar-beharrezkoa dela diogu, Gipuzkoako futbolaren plan estrategikoa prestatzen ari direlako, eta horretarako antolatu den lan-taldean lehendakaria dugu OKEko ordezkari. Plan horrek kategoriak, talde-kopurua, herrialde eta eskualdeko mailak zehaztuko ditu, gaurko egoeraren, aurreikusitako bilakaeraren eta elkarte bakoitzaren merezimendu historikoaren arabera, ... baina, batez ere, futbol amateur eta errendimenduko egiteko udaleko instalazioen arabera, eta bereziki jokalarien teknika hobetzeko instalazioek eskaintzen dituzten aukeren arabera, hau da, elkarteak

jartzen dituen teknikari homologatuak, entrenatzeko ordu libreak eta instalazioen kalitatea.

Udal hauteskundeetarako urtebete eskas falta da eta jakina, goiko parrafoan adierazitakoa baloratu ahal izango dute alderdi politikoek eta aldi berean, euren hautes-plataformetan belar artifizialeko zelai berria eraikitzeako proiektua sartzearekin batera lortu ahal izango dutena.

Vicente Trujillo
zuzendaritza batzordearen izenean

2.- EAJ-EAko zinegotzi-taldeak ateratako oharra muga horiek gaunditu egin dituzte udaleko funtzionario bat horretan nahastean saiatu direlako, horren lan profesionala deskalifikatuz.

3.- Jarduteko modu hori erabat baztertzen dugu, gehiegikeria hutsa izateagatik eta guztiz neurrigabea delako, horren eragina izan duen udal-langileak azaldu diren salaketei erantzun publikoa emateko aukerarik izango ez duelako.

4.- Hala eta guztiz ere, honako agiria sinatzen dugu: Udaletxeko langileak eta lanean dihardugun zinegotziak, ongi ezagutzen dugu eragindako udal-langilearen jarrera eta profesionaltasuna, Ormaiztegi Udaletxean azken 23 urte hauetan egin duen lanagatik, horregatik gure elkartasuna eta laguntza osoa eskaini nahi dizkiogu.

Udaletxeko langileak:

*M. Karmen Baztarrika,
A. Amundarain, Miren Martinez,
Pilar Garmendia. Zinegotziak:
J.K. Leturia, Lierni Oiarzabal,
Oihana Oñativia, Igor Elortza,
Roman Larena.*


EAJ-EAko zinegotzi-taldearen izenean argitaratutako oharri erantzunez

EAJ-EAko zinegotzi taldearen izenean orain dela gutxi argitaratu den oharra ikusi ondoren, behean sinatzen dugunok ondorengo azaldu nahi dugu jendaurrean:

1.- Gure jarrera politikoak alde batera utzita jarduten dugula, edozein motatako liskarretan etika-mailan muga batzuk badaudela pentsatzen dugulako, baita politika-eremuan ere, eta horiek orain arte errespetatu egin dira Ormaiztegin.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Hondakinen errauskailuei buruz

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016. urtera arte indarrean egongo litzatekeen Hiri-hondakinen Planaren aurrerapena aurkeztu du. Plan honek hondakinen birziklaia bikoizteko helburuarekin batera hondakinen errauskailuak jartzeko aukera ere azaltzen du.

Azken urte hauetan hondakinen birziklaia gehiagotzen joan den arren, hondakinen ekoizpenak ere gora egin du, nahiz eta populazioaren tamaina ez aldatu denbora horretan. Oso argi ikusten da hazkunde ekonomikoa dagoenean hondakinen ekoizpenak gora egiten duela. Horregatik, urte zabortegetara eraman den hondakinen kopurua gehitzen joan da, horietako batzuk betetzera iritsiz eta besteen bizia laburtuz.

Gure ustez, errauskailuak jartzea ez da alternatiba jasangarria. Alternatiba jasangarria sorburuko murrizketan, berrerabilpenean eta birziklaian dago.

Hondakinei dagokienean era jasangarri jarduteko lehendabizikoa hondakin gutxiago sortzea da. Kontuan hartu behar da produktuk askok eta askok enbalaje gehiegi eta birziklaiaren ikuspegitik desegokiak dituztela. Enbalaje horietako askok zabortegetan bukatzen dute beren ibilbidea. Behar-beharrezkoa da horiek gutxitzea. Baina ontzi eta enbalajeen industriaren inguruko presio-taldeek eragozten dute neurri handi batean hondakinen sorburuko murrizketa hau.

Aipatutako Planaren arabera errauskailuak jartzen badira, horrek birziklaiaren aurrerakada frenatuko du. Errauskailu batek,



bizi mugatua du, diru asko kostatzen da eta elektrizitatea produzitzea du helburu. Elektrizitatea produzitzeko erregaia behar du, hau da, hondakinak behar ditu. Zenbat eta hondakin gehiago erre orduan eta elektrizitate gehiago produzituko da. Jendeari elektrizitatea horrela produzitzea helburu ona dela esan eta gero, nola ahaleginduko dira hiritarrak papera, kartoia eta plastikoak bezalako hondakin-erregai onak birziklatzen?

Esan beharra dago baita ere errauskailuek ez dutela zabortegeen arazoa konpontzen, errauts toxikoak ekoizten dituztelako eta horiek zabortege berezietan pilatu behar direlako.

Gainera, errauskailuen tximinietatik dioxinak bezalako substantzia oso toxiko eta iraunkorrak botatzen dira airera, nahiz eta iragazki oso garestiak jarri.

Esandakoarengatik, uste dugu errauskailuak jartzea gure gizartearen porrotaren beste adierazle bat dela, hondakinen kudeaketa jasangarri bat gauzatzeari uko egiten baitio, beste behin arazo honi aurre egiteko gure ezintasuna agerian utziz.

Eduarne Huesa – Joxan Auzmendi

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Euskadiko Erkidego Autonomoan (EAE) kontsumitutako elektrizitatearen %30 bertan produzitakoa da, %70, berriz, Espainiatik ekartzen da, garraioan %8 galduz. Elektrizitate horren produkzioan EAEn erabiltzen diren energia iturri nagusienak ikatza, fuelolioa eta gas naturala dira, eta Espainian ikatza eta uranioa.**

✓ **Munduko bost etxabere ugariak kopuru handienetik txikienera ordenatuta hauek dira: erleak, oiloak, behi-aziendak, ardiak eta txerriak.**

✓ **Azken urte hauetan zapoak eta igelak bezalako anfibioek beherakada handia eraman dute. Bi arrazoi nagusi daude hau azaltzeko: animalia hauen bizileku edo habitatak hondatzea eta eguzkitik datozen izpi ultramoreen gorakada.**

✓ **Zuhaitzen enborreko eraztunei** so egiten badiezu, batzuk besteak baino argiagoak direla konturatuko zara. Eraztun argiak udaberrian sortzen dira, eta udaberriko eraztun deitzen zaie, ilunak, ordea udazkenean sortzen dira, eta udazkeneko eraztun deitzen zaie.

LIBURUA

✓ **"Birziklapenaren Gida liburua", SASIETA** Mankomunitatea. Hondakinak modu egokiz kudeatzeko informazioak eta aholkuak aurkitzen dira bertan. Gida oso interesgarria eta lagungarria.

"Errauskailuak jartzea ez da alternatiba jasangarria"

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia:

Beasainen euskararen normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, Beasaingo Udalak, Beasainen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egin eta garatzeko konpromisoa hartu du. Baina zer da Euskara Bizitzeberritzeko Plan Nagusia?

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean egindako plana da. Eusko Jaurilaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartua. Une honetan, udalak, herriak, ari dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen, Eusko Jaurilaritzak prestatu dituen eredueta oinarrituta eta udal-erri bakoitzaren egoera kontuan izanda. Euskal Autonomia Erkidegoan 18 udal ari dira plan estrategikoa garatzen, tartean, Beasain.

Beasaingo Udalak ere euskararen Plan Nagusia izateko eta garatzeko konpromisoa hartu du bere ekimenez. EBPN prestatzeari ekin dio eta uda aldera lehen zirriborroa edo proposamena egin izango du. Eusko Jaurilaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean dabil horretarako. Behin lehenengo proposamena egin da, udazkenean, Beasaingo herriko elkarte, talde edo herritarrei planari buruzko iritzia eskatuko zaie. Urte bukarerako Plan Nagusia egin aegotea aurreikusten da.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, hizkuntzaren



normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da. Hizkuntza politika egiten diharduten herri aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna izango da. Helburuak adostu, egitarauak egokitu, ebaluazio irizpideak zehaztu, lehentasunak finkatu eta herri erakundeen arteko koordinazioa hobetzen eta euskalgintzan diharduten bestelako enpresa eta herri elkarteekiko harremana bideratzen lagunduko duen tresna hain zuzen ere.

Zer da?

● Datozen hiru-lau urteetan hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko Plan Nagusia.

● Beasaingo Udalarri eta gainerako herri aginteei hizkuntza politika egiten lagunduko dien oinarritzko tresna.

● Dokumentu irekia eta eten gabe egokitze sortua.

Zertarako?

● Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko, behar diren hizkuntza-politika neurriak erabakiz eta bultzatuz.

● Maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko, euskararen aldeko urratsak areagotuz.

Helburu estrategikokoak

● **Katea ez dadin eten, euskararen transmisioa.** Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe ondorengoetaraztea: hezkuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, euskararen familia bidezko jarraipena.

● **Euskararen erabilera, euskaraz egiteko aukerak izan ditzaten.** Erronka nagusia belau-naldi berrietako euskaldunentzat euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik beste erabilera-eremuetara zabaltzea da: administrazioa, gune euskaldunenak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berria, lan-arloa, aisia, kirola, erlijioa.

● **Euskararen kalitatea, beasaindarrek egiten duten euskara kalitatezkoa izan dadin.** Hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko, etengabe elikatu: corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, prentsa idatzia, liburugintza, irratia, telebista, publizitatea, kultur-gintza.

Beasaindarren %66,6a euskalduna

● 10 biztanletik 6,6 erabil-tzaile potentzialak dira. Erabili, berriz, 2,9ak egiten du. Beasainen hamar lagun-etatik bost euskaldunak dira (% 56,1). Beste hamarren bat (%10,2) elebidun hartzaileak dira, hau da, ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gaitasuna dute. Nabarmenezkoa da Beasainen 15 urteren buruan izan den bilakaera: euskaldunen portzentajeak, 1981etik 1996ra bitartean, 16,1 puntu egin du gora; erdaldun elebazarren portzentajeak eta elebidun hartzaileenak, berriz, behera egin du (%8,1).

Etxean euskaldun zaharren artean 10etik 7,2 euskaraz mintzatzen da, eta 2,1ek gaztelania eta euskara erabiltzen ditu.

● **Ikastetxeetan D eredu da nagusi:** Eskolaurrean %100, Lehen Hezkuntzan %85 eta DBHn %75. Lanbide Heziketan eta Batxilergoan %93,5. Euskaldunen proportziorik handiena gazteen artean dago. 19 urte beherako adin-tartean euskaldunen nagusitasuna erabatekoa da (%88tik gora euskaldunak dira). 20 eta 24 urte bitartekoan artean euskaldunak bi heren dira (%67,5).

Jon Jauregi, Beasaingo alkatea: "Herriaren plana izan behar du, bestela ez du arrakastarik izango"

Beasaingo Udalak konpromisoa hartu du Beasainen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egin eta garatzeko. Nolatan eta zergatik hartu du erabakia?

Orain arte herrietan, euskara udaletxe barruetan aritu gara euskara garatzen. Herriarren euskararen ezagutza ere aurrera doa, eta ikusten genuen Beasainen euskararen ezagutza igoera igotzen ari zela, urtero, batz bestea, %1,1. Momentu honetan Beasaingo biztanleen %66a, gutxi gora-behera, erabiltzaile potentziala da. Ikastetxei esker, euskaltegiei esker izan da batez ere. Sistema jarri da etorkizunean ere, euskara ezagutza maila batz besteko horretan gehitzen jarraitzeko. Baina urte batzuetatik hona ikusten ari ginen euskararen erabilera motelago zihola. Zergatik? Orain arte euskara etxetara edo eskola mundura mugatu delako. Baina eskola mundutik kanpo dauden zirkuitu guztiak, errealitate ezberdinak, lan errealitatea, kirol errealitatea, aisi errealitatea, erdaldun bezala ikusten dira.

Udala hasita zegoen pausoak ematen: enpresa munduan euskara sartzeko, merkataritza munduan, aisialdian Txanoberritsu, Koadrillategi programak.... Esku tartean EBP Naz gain beste ekimen bat ere badaukagu: gazteentzako zerbitzuak antolatzea, euskararen ikuspegitik. Kale hezitzaileak, ludoteka, kirol arloko ekintzak, Gazteria arloak antolatzen dituen ekintzak, Gazteleku baten beharra, ludoteka 16 urte artekoentzat izatea... Beasain Kirol Elkartarekin ere harremanetan jarrita gaude oinarritzeko taldeetan euskara sartzeko hitzarmena lantzen.

Horrek denak planifikazioa eskatzen du. Hau da, hori aurrera daramaten eragile guztiekin hitz egin, bakoitzaren hizkuntz politikak adostu eta eraginkorra izan dadin plan bat egitea zen helburua. Bitartean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia etorri da helburu berdinekin. Jaurlaritzak horretarako dirua eta laguntza jartzen du. Orduan egingo duguna da, Plana egin eta martxan jarri. Euskarari, herri mailan, eskolatik kanpo ere bere tokia emateko esfortzu bat egin beharra dago. Prozesu geldirik izango da eta eragile guztien arteko adostasuna eskatuko du.

Ikastetxeetako datuak kontuan izanik, (Haur Hezkuntza %100 D ereduan ikasten ari dira), Beasain euskalduna izango da etorkizunean.

1982an hasitako planaren ondorioz euskalduna da eskola, ez da golpezkoa izan. Oraingo batz bestekoarekin, teoriarik, 14-15 urte barru, Beasaindarrak %80tik gora, euskalduna izango da; gainera, euskaldun alfabetatua. Orain hasi beharrean gaude kale mailan lan handia egiten eta euskara bultzatzen. Azken batean dibortzioa dago jakintzaren eta erabileraren artean.



Klabea da, borondate politikoa eta herriaren kontzientzia tinko mantentzea.

Aurkezpen egunean Udaletxeko Batzar Aretoa jendez gainezka izan zen.

Herrian euskararen aldeko kontzientzia garrantzitsua dagoela adierazten du. Poza ematen du horrek, baina kezka ere bai neurri batean. Hartutako konpromisoa handiagoa da eta ezin da kale egin. Pazientzia handiko lana izango da.

Planaren metodologia zein izango da?

Datuak jaso, euskara ahul eta indartsu non dabilen ikusi, erabakiak hartu eta lehentasunak jarri. Udarako, plan proposamena eginda egotea aurreikusten da. Ondoren, udazkenean, herriko elkarte eta eragilei aurkeztuko zaie, proposamenak eta ekarpenak jasoz. Azkenik, urte bukaerarako, plana eginda eta onartua egotea aurreikusten da. Eragile guztien inplikazioa eta parte hartzea, behar-beharrezkoa da plana aurrera eramateko. Horregatik ezinbestekoa da beraiekin parte hartzea. Herriaren plana izan behar du, bestela ez du arrakastarik izango.

Beasainen, gabeziarik handiena non dago?

Gazteentzako aisialdian. Gazteentzat antolatzen dena euskaraz izan behar da, eta horretarako eragile ezberdinekin harremanetan jarri eta hori bultzatu behar da. Udalak ere berdin egin behar du. Beste gabezia bat ere ikusten dut: enpresa munduan, sentsibilizazioa zabaltzea. Esaterako, CAF eta Indar euskara planean sartuta baldin badaude, langile bat kontratatzerakoan euskara kontuan hartzea garrantzitsua da.

Beasainek zer lortuko du Plan honekin?


Euskara gehiago erabiltzea eta euskarari gero eta leku gehiago ematea. Beste lorpen bat ere izango da: plan hori ondo ateratzen bada, bere onarpenean behintzat, eragile askoren bategitea eta adostasuna lortzea. Behar-beharrezkoa da prozesu sozio-politiko zabala izatea. Momentu honetan euskarak izan dezakeen etsirik nagusia, ezadostasuna da, eta horretan denok egin beharko dugu esfortzu bat.

Aizkorriko Lagunen Eguna

Hirugarren urtez jarraian, uztailleko lehenengo igandean, Zegaman, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatuko da. Aurreko berrikuntza garrantzitsu bat prestatu dute zegamarrek: Zegama-Aizkorri mendi maratona. Lehenengo edizio honetan, 200 korrikalari inguruk parte hartzea espero dute antolatzaileek.

"Aizkorri eta Aizkorrialdearen edertasun berezko hori. Zegamarrok geure-geurea dugun hori, geure izaeraren lekuko dugun hori, Euskal Herri guztiko gizon-emakumeen begien oroigarri izatea". Horixe da Aizkorriko Lagunen Egunaren helburua. "Zegamako herriak aparteko edertasuna dauka. Naturaren indarrak bere gordinean erakusten duen edertasun horietakoa, behin ikusi, begira-begira egon, eta inoiz ahaztuko ez duzun edertasun erakargarri horietakoa: Aizkorri eta Aizkorrialdea", diote zegamarrek. Aizkorriko Lagunen Elkarteko bazkide egiteko aukera badago oraindik ere, 943801351 telefono zenbakira deituz.

Hurrengo lehenetan, egitaraua eta 2 korrikalariren iritzia dituzue.



Ekainaren 7ko egitaraua

06:00etan: Zegamako plazatik Aizkorriko mendi ibilbidea-
ren irteera Amezti Mendi Elkartearen gidaritzapean.

07:30ean: Zegamako plazatik autobusez Apeaderoraino eta hemendik Sancti Spiritura oinez Ameztzi Mendi Elkartekoan gidaritzapean.

10:00etan: Atsedenaldia Sancti Spiritun. Meza Sancti Spirituko baselizan Aita Pello Uriolabeitiak emana.

10:30ean: Hamaiketakoa, txorizo ogitartekoa eta edaria, bertara hurbildu nahi duten guztientzat.

10:45ean: Maratoiko lehen korrikalariak Sancti Spiritutik igaroko dira eta 11:45 arte igarotzen diren guztiak ikusteko aukera ezin hobea izango da.

11:45ean: Sancti Spiritutik Zegamarako jaitsiera lagun artean Gurutze Gorriaren laguntza eta mendiko automobil zerbitzua jarriko da norbaitek hala behar izanda ere.

13:30ean: Erromerian datozenak trikitilariekin kalejiran sartuko dira herriko plazaraino. 15:00ak arte, korrikalarien helduera ikusteko aukera izango da plazan.

14:30ean: Maratoiko sari banaketa egingo da.

15:00etan: Bazkaria herriko pilotalekuan. Ekainaren 30erako eman behar da izena telefonoz (943 801351). Bertsolariak, trikitilariak eta txiste kontalaria.

18:00etan: Herriko kaleetan erromeria erraldoi eta buruhandiekin.

Mendi maratoia

Zegama-Aizkorri mendi maratokia goizeko 9etan irtengo da Zegamako plazatik, 42,195 kilometro egin ondoren bertan bukatzeko.

Punturik behekoena Zegaman izango da 296 metrotan eta altuena Aitxurin 1.551 metrotan. Baina guztira 5.034 metroko gora behera du probak.

Lasterketa ikusi nahi dutenentzat, gutxi gorabehera, 10:45-11:00 aldera pasako dira lehenengo lasterkariak San Adriandik, 11:15-11:30 aldera Aizkorriko gainetik eta 13:30 aldera iritsiko da garalea Zegamara.

Partehartzaila kopuruaren muga 300 lasterkarikoa da eta proba izan baino astebete lehenago 200ek izena emana zuten. Tartean Euskal Herriko eta Espainiako onentsoenak, eta ingeles pare bat ere bai. Lasterketaren gogortasuna kontuan hartuta bukatzeko gehieneko denbora: 8 ordukoa da.

Goierritar asko animatu da maratoian parte hartzera. 3 zegamarrek ere izena emana dute herrian bertan lasterketa antolatzeak tentaturik.

Hurrengo orrialdean maratoian parte hartuko duten hainbat goierritarren artetik biren hitzak dituzue, lasterkarien iritzia adierazgarri.



Abuztua

750 Euro

Bilbo-La Habana-Bilbo
Gehienez 45 egun

Hirigoien, 12 LAZKAO

Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971

e-posta: algoz@wanadoo.es



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

toia jokatu da lehenengo aldiz ekainaren 7an, Zegaman

Aitzol Telleria 30 urteko zeraindarra: "Astakeria da, oso gogorra"

Orain dela 4 bat urte Anetoko maratokia egin zuen eta aurren Gorbeako egin du baina hau 32 kilometrokoa da eta desnibela ere erdia du. "Aizkorrikoa bertan denez egitera animatu naiz. Entrenamenduak ere nire kasa egiten ditut ez naiz prestatzaileekin ibiltzen. Pixka bat entrenatu eta bukatzea dut helburu".



Aurretik probatu eta bukatzeko moduan ikusi zuen bere burua eta animatu egin da. Proba gogorra iruditzen zaio, "astakeria da, oso gogorra. Esaten dute Madrilén dagoela beste bat antzekoa, bestela ingurukoak baino gogorragoa da. Gora eta behera asko egiten du. Anetokoa probatu nuen eta hura oso ezberdina zen, lehenengo erdia dena goraka da eta beste erdia dena beheraka". Berez gogorrena Aizkorri artekoa dela dio, "bigarren erdia gehiena beheraka da baina edozein aldapatxo oso gogorra egingo da. Agian azkeneko metroak gogorrenak", dio irribarrez. Errepidean ibiltzen diren korrikalarientzat aldapa behera harri artean korrika egitea gogorra izango dela gehitu du.

Maratoi arruntik ez du inoiz egin, "beti mendian ibili izan naiz, errepidean Behobia lagunartean eginda nago. Mendian ibiltzeko gutxienezko sasoi bat izan behar da baina mendi maratokia prestatzea oso ezberdina da eta korrika asko egin beharra dago prestatzeko".

Bero handia egiten badu oso gogorra izango da. "Oso ondo prestatzen direnek gutxiago nabaritu dute, baina besteok gaizki pasatuko dugu. Nik uste 5 ordu 5 ordu t'erdian egingo dudala, eta bero handia egiten badu, 6ez azpitik egitea espero dut. Hori bai, irteera beranduegi jarri dute, goizeko 9etan".

Josetxo Arrieta 42 urteko zegamarra: "Badakit dena ematera joango naizela"

Ez du lehiaketa batean parte hartu, hau izango du lehenengoa. Beti egin du fondoko kirola, batez ere txirrindua eta mendia. "Azkeneko urteetan txirrindua alde batera utzia dut eta erreleboan lan egiten dudanez egunero egiten dut mendian ordu pare bateko bueltaren bat. Horrek ondo sentiarazten nau".



Herrian maratokia egin behar zutela jakitean berotu egin zen. "Ibilbide erdia egin nuen eta 3 ordu behar izan nituen. Hasieran gehieneko denbora 6 ordu t'erdia jarri zuten pentsatu nuen prestatuz gero egin nezakeela eta animatzen joan naiz. Ni beti oinez ibili naiz eta korrika egiteko, batez ere aldapa behera, hankak ohitu beharra izan dut eta horretarako asko ibili behar da. Horrela, izena eman nuen eta ez du atzera bueltarik".

Gero pixkanaka bere buruari helburuak jartzen joan da. "Lehenengo 6 orduetik jaitea zen. Gero entrenatzeko erritmoa hartuz joan naiz eta orain 5 ordu t'erdia 6 orduetan bukatu nahi nuke. Osoa ez dut inoiz egin, erdia egin dut eta gehienek 3-4 ordu. Lasterketako egunean ikusiko dugu zer ateratzen den. Lasaiago egitea hobe nuke baina badakit dena ematera joango naizela, harra sartuta baitut. Beldurra ematen dit berotu eta behar baino azkarrago joateak, nahiko buru beroa bainaiz".

Ibilbide oso polita baina oso gogorra iruditzen zaio Arrietari. Eta eguraldiak zeresan handia izango du, hegoia edo laino erreari dio beldurra. Nahi duen eguraldia goizean fresko eta ondoren eguzkia ipar haizearekin da. "Ni beti ura bakkrik edanez ibili naiz mendian eta orain isostar eta barrita energetikoak hartuz nabil eta nabari da".



"LURRA"
Naturako zerbitzu turistikoak

J. Ramón Agirre "Márron"
Tel. 943 18 02 53
615 781 287
E-mail: lurra@pirineum.net

www.pirineum.net **Pirinioak pausoz pauso**

Murgil zaitetz inguru paregabe honetan, aditu eta natur maitaleen laguntzaz

Gainez gain, itsasotik itsasorako zeharkaldiak

1. Mediterraneo - Banyuls - Eyne (7 etapa) • 2. Eyne - Tavascan (7 etapa)
3. Tavascan - Pineta (7 etapa) • 4. Pineta - Belagoa (7 etapa)
5. Belagoa - Hondarribi (7 etapa)



AEK txiste lehiaketako irabazleak

Goiztiri eta Bisasti AEK euskaltegiek XI. txiste eta pasadizo idatzien lehiaketa antolatu dute. Guztira 85 txiste jaso dituzte, Gasteiz, Beasain, Idiazabal, Ordizia, Lazkao eta Zumarragatik iritsiak. 3 txiste onenak Goiztiri eta Bisasti AEK-ko ikasleek aukeratu dituzte eta irabazleak "Oporretan", "Orient Express" eta "Bahiketa" txisteak izan dira. Lehen biak Beasaingo Goiztiri AEK-ko arratsaldeko goi urratseko taldekoek idatzi dituzte eta hirugarrena Ordiziako Goiztiri AEK-ko eguerdiko goi urratseko taldeak. Irabazleek honako sariak jaso dituzte: bina afari Aramako Toki Alai jate-txean, Ezkio-Itsasoko Labekoan eta Beasaingo Artzai Enean.

Orain 11 urte sortu zen lehiaketa hau goierritarrek txisteak euskaraz idazteko ohitura hartu asmoz. Aurten ere lehiaketa Ordizia eta Basaingo Udalen laguntzarekin antolatu da.

AEK-n jaso dituzte lan gehienak txisteak izan dira eta pasadizo bakanen bat ere iritsi da. Hona hemen saria jaso duten 3 txisteak.

Oporretan

Gizon batek zakilean bere andregaiaren izena tatuatu zuen. Normal zegoenean Wy eta altxatzean Wendy irakur zitekeen.

Behin oporretan Jamaikara joan zen. Komun publiko batean zegoela beltz bat bere ondoan pixa egiten hasi zen. Gizonak Jamaikarraren zakilean Wy jartzen zuela ikusirik harrituta galdetu zion:

- Zer zure emaztegaia ere Wendy al da?
- Ez. Erantzun zion haserre.
- Barkatu baina nire emaztegaia izena Wendy da eta normal dagoenean zurean bezala Wy irakur daiteke.
- Ez. Nirean altxatzen denean irakur daitekeena zera da: Welcome to Jamaica and have a nice day.

Beasaingo Goiztiri AEK-ko arratsaldeko goi urratseko ikasleak

Orient Express

Orient Expresseko bagoi batean bi gizon baka-rrik doaz. Goiza... arratsaldea...gaua... igaro ondoren egunsentian bata besteari galdetu dio:

- Aizu... nongoa zara?
- Kontxo... Bilbokoa naiz, aibalaostia!
- A zer nolako kasualitatea, ni Santanderrekoa naiz!
- Aibalaostia biok iparraldekoak gara!...
- Eta zertan aritzen zara?
- Bada, bibolinjolea naiz...
- Ostia!... ni ere bai!!!
- Ez da posible, zu ere bibolinjolea. Bada, aditzera ematen dizut ni honetan oso ona naizela...
- Ona.... hori ez da ezer, ni Espainiako onena naiz!

-Espainiakoa? Ni Europako onena naiz!!!

-Tira, pentsa ezazu zeinen ona naizen, Santanderreko elizan jotzen dudanean zurezko ama-birjina negarrez hasten dela.

-Ah bai. Horregatik lehengo egunean Bilboko katedralean jo nuenean Jesus gurutzetik jaitsi, ni besarkatu eta esan zidan:

- "Hori bai dela jotzea eta ez nire ama negarrez uzten duen Santanderreko memeloak egiten duena!"

Beasaingo Goiztiri AEK-ko arratsaldeko goi urratseko ikasleak

Bahiketa

Tipo bat 25 urte kartzelan pasatzera bidali zuen epaileak. Baina kartzelan sartu eta gero ihes egitea lortu zuen.

Bikote gazte baten etxean sartu zen. Gizona aulki batean lotu zuen eta neska logelara eraman eta kateatu zuen. Eta neskari zerbait xuxurlatu ondoren joan egin zen. Senarra arrastaka emaztearengana hurbildu eta hau esan dio:

- Laztana, gizon horrek ez du urtetan emakumerik ikusi. Zure lepoa musukatzen ikusi dut eta irten dela aprobetxatuz, eskatzen dizun guztia egiteko erregutzen dizut. Zurekin sexua nahi badu, ez esan ezetz, eta aurpegi ona jarri bestela gure bizitza gal dezakegu. Izan adoretzua, maite zaitut.

Eta emazteak honela erantzuten dio senarrari:

- Kuttuna, atsegin dut zuk horrela pentsatzea, baina ez zen lepoa musukatzen ari, zu bere gustukoa zarela esan dit eta bainugelara joan da baselinaren bila, gogorra izan maitea, nik ere maite zaitut.

Ordiziako Goiztiri AEK-ko eguerdiko goi urratseko ikasleak

Krisia Ormaiztegiko udaletxean

Gorabehera handiekin dabiltza azken aldian Ormaiztegiko Udaletxean. Udal batzarrik egin gabe, herriari dagozkion zenbait gai aurrera atera ezinik daude Ormaiztegin. 2002ko ekainaren 20an egin zen pleno berezia egin zen, Batasunak deituta.

Batasunak ekainaren 20ko pleno berezian, Udal batzarren blokeoa eta alkatearen jardura salatu zuen, "Maioraren arduragabeko kudeaketa baldarra" azpimarratuz. Batasunak, Udal jardura bere onera ekartzeko proposamena aurkeztu zuen.

Batasunaren esanetan, kudeaketaren geldotasunaren ondorioz, hainbat proiektu geldirik dago, tramiteak pasa ezinik, eta zenbait proiekturen sustatzaileek dirua exijitu diote Udalari, kalteordain gisa. Iñaki Maiora alkatea egin du Batasunak egoera horren errudun. "Udal batzar honek hartutako erabakiak eta emandako aginduak orokorrean ez betetzea; laguntza teknikorako kontratazioan izandako irregulartasunak; eta Udalaren erantzukizunagatik egin diren kalte ordainen erreklamazioak", leporatu dizkio Batasunak Maiorari.

Udal batzar berean, Batasunak, "Maiorak Udal Idazkariaren aurka martxan duen



Ekainaren 20an ezohiko udalbatza egin zen. Batasunak aurkeztutako proposamenak bozkatu ziren.

pertsekuzio eta deskalifikazio kanpainaren salaketa" egin nahi izan zuen eta bide batez, Udal Idazkariari elkartasuna adierazi.

Ormaiztegiko EAJren barruan dauden desadostasunak ere, Iñaki Maiora alkateari konfiantza kendu baitio, Udaletxeko egoera zailtzen du. Dena den, Maiorak, EAJren Gipuzkoa Buru Batzarraren babes osoa du.

EAJ-EA koalizioak sei zinegotzi ditu eta Batasunak hiru. EAJko zinegotzi batek, Lierni Oiartzabalek, dimisioa aurkeztu zuen azkeneko plenoan, "arrazoi pertsonalak" argudiatuz. Momentu horretan, Juan Karlos Leturia EAJko zinegotziak, "alkatearen presioengatik" izan zela zehaztu zuen. Iñaki Maiora alkateak ukatu egin zuen salaketa.

EAJren artean dauden desberdintasunak nabarmen gel-

ditu ziren, Batasunak aurkeztutako proposamenetan, Leturia EAJko zinegotziak bat egin zuelako. Beste puntu batzuetan abstenitu egin zen, "alderdian liskar gehiago" ez sortzearen. Beraz, puntu batzuetan berdinketa egon zen. Alkatearen kalitate-botoarekin hautsi zen berdinketa.

Area 4-koen haserre

Plenoaren amaieran, erregu eta galderen tartea izan ohi dela aprobetxatuz, Area 4-ko bizilagunek, herriko Area 4a zertan den galdetu nahi izan zioten Maiorari. Ez zuen galderarik entzun nahi izan, plenoa bukatu zela esanez eta hurrengo egunean hitz egingo zutela esanez. Area 4koek haserre azaldu nahi izan zuten komunikabideon aurrean, beste egun baterako gaiaren inguruan hitz egiteko zita egin ez.

Alkatearen iritzia

Ekainaren 20ko plenoa ikusirik, Iñaki Maiora alkatearekin izan gara bere jarrera edo azalpena zein den jakiteko. "Duela urtebete inguru gehiengorik gabe gelditu nintzen Udaletxean. Ezin nituen herriarentzat garrantzitsuak ziren gaiak aurrera atera, besten beharra nuelako. Niri leporatzen zidaten Udala geldirik dagoela. Udaleko gai batzuk bai egon direla geldirik, beste batzuen beharra nuelako aurrera ateratzeko eta ez zegoen borondate gehiegirik. Hori bai, herriak berdin-berdin funtzionatzen jarraitu du. Nire eskutan zeuden gai guztiak aurrera ateratzen nituen, alkatearen dauzkan ahalmenez baliatuz".

Maiorak adierazi digunez, "nik esan diet behin baino gehiagotan, niri leporatzen badidate Udala eta gai horiek niregatik geldirik daudela, hartu dezatela ardura eta nahi duen moduan atera ditzatela gai horiek aurrera, nik ez diedala oztoporik jarriko. Itxura denez, ez da hori nahi zutena, beste helburu batzuk zeuden ikusten denez. Horrela jarraitu dugu gorabehera handiekin, orain arte. Ekainaren 20ko plenoan, gehiengoarekin atera nintzen lehenengo aldiz. Hemendik aurrera, serio, blokeatuta dauden gai horiei fuertez heldu eta aurrera ateratzeko intentzioarekin gaude".

Boni-etxe

igeltseritza orokorra

© 616 921 502 Oriako pasealekua, 12 BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN





Uda 2002: kirol ikastaroak

Aurtengo udan, Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, Uda 2002 kirol kanpaina aurrera eramateko asmoa dauka. Abuztuaren 26tik irailaren 13 bitartean, kirol ekintza ezberdinak burutuko dira. Izena, ohi bezala, aurretik eman behar da eta horretarako bi telefono zenbaki dituzue: 943 88 14 34 (Udaletxea) eta 943 88 64 55 (Ludoteka).

Kirol ekintza bakoitza duzue jarraian, xehetasun guztiekin.

Tenisa

Abuztuaren 26tik irailaren 6ra, 11:00etatik 12:00etara. Adina: 6 urtetik 18 urte bitartekoentzat. Prezioa: 15 euro.

Irristaketa

Abuztuaren 26tik irailaren 6ra, 12:00etatik 13:00etara. Adina: 6 urtetik 18 urte bitartekoentzat. Prezioa: 15 euro.

Arku tiraketa

Irailaren 9tik 13ra, 18:00etatik 19:00etara. Adina: 8 urtetik 18 urtera bitartekoentzat. Prezioa: 12 euro.



Mendiko bizikleta

Irailaren 2tik 6ra, arratsalde. Adina: 12 urtetik 18 urte bitartekoentzat. Prezioa: 12 euro.

Mendiko bizikleta

Irailaren 9tik 13ra, arratsalde. Adina: 8 urtetik 14 urte bitartekoentzat. Prezioa: 12 euro.

Herriko kronista

Olaberriko albisteak idatziko dituen kronista behar du GOIERRITARRA aldizkariak. Inork interesik balu, jar dadila harremanetan GOIERRITARRA aldizkariarekin, 943-889612 telefono zenbakira deituta.



Errepetizio festak

Sanpedroetan festa gutxi izan bailitzan, sanferminetan, uztailearen 6an, postrea izango da. Hori bai, arratsalde eta gaueko festa izango da. Jarraian duzue egitaraua:

Arratsaldeko 6etan, patata tortila lehiaketa izango da.

Jarraian eta afaldu aurretik, lehiaketarako prestatutako patata tortilarekin batera, ardoa banatuko da.



Gaueko 9ak aldean izango da afaria.

Eta azkenik, 2002. urteko

festa egunei amaiera emateko, dantzaldia izango da Trakets taldearen eskutik.



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA


Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Zegama eta Aizkorri jendez janzteko prest

Datorren uztailaren 7an egun handia izango da gure herrian, izan ere, III. Aizkorriko Eguna eta Zegama-Aizkorri mendi maratoia dela eta Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko korrikalari ugari izango baitira maratoia korritzen eta baita, goizeko 6etan eta 7,30etan irtengo diren mendi ibilaldietan parte har-

tzen ere. Gogoratu, goizeko 10etan Iñaki Arantzadik emango duela meza Santu Espirituko Ermitan eta bertan aukera ederra izango dutela bertaratuek Udalak eskainitako otartekoa lagun, lehen korrikalariak ikusteko.

Eduarne Albizu

Tartalo elkarteak artzainei omenaldia

Joan den igandean, herriko artzainek omenaldia jaso zuten, Tartalo Elkarteak kide den Angel Irigorasek idatzi duen artzantzari buruzko liburuxkaren aukezkera eginez. Ekitaldia, eguerdian izan zen eta ondoren Ostatur lagunarteko bazkaria izan zuten.

Uztaila ekintzaz beterik

Uztailaren 11n antzerkia. Gueako 10,30etan, "Ondo esan beharko" antzeslana ikusteko aukera izango dugu udal arkupeetan. Bertan Ramon Agirre eta Joserra Senperena aktoreek parte hartzen dute eta Zegamako Udala, Kutxa eta Kultur Etxearen arteko lankidetzarekin lortu da ekitaldi hau ekartzia.

Uztailaren 14an, jubilatuen Eguna izango da Zegaman, besteak beste bazkari eder bat eskainiko zaie Udal Pilotalekuan.



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

GERTU

aholkularitza

TXEkin programarako
homologatutako erakundea



Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92

Ursuarana oinezkoentzako bidea egiteko eskaria

Etxegarateko bikoizketa bukatutakoan, autobide berrian oinezkoek eta txirrindulariek ibiltzeko aukera izango duten arren (bide alternatiborik ez dagoelako), horrek duen arriskuari aurre egiteko eskaria egin dio herritar talde batek Udalarari: herri gunea eta Ursuaran, oinezkoentzat lotuko dituen bidea egitea.

Herrian, ekimen horren aldeko sinadurak jasotzen aritu dira azkeneko asteetan eta eskaria dagoeneko Udalarari aurkeztu diote. Eskaria, Idiazabaldik irten eta Turbinea, Olabarrieta eta Lizardi bitarteko ibilbidea eginez, 13-14 kilometroko pasealekua egokitzea da.

Eskatzaileen esanetan, herritarrek paseorako leku berria izateaz gain, Idiazabal eta Ursuaran gertuago egoteko modua ere izango litzateke bide berria.

Udalak eskuartean du proiektua eta haren bideragarritasuna aztertzen ari da.

Eguneko zentroa

Pilarreneako Eguneko zentroak, udako zerbitzu berezia eskainiko die herritarrei. Zaintzailea behar duten edaduei, udan Eguneko zentroa erabiltzea proposatzen die Udalak. Familiek uda garaian dituzten beharrei aurre egin eta herritarrek Eguneko zentroa ezagutzea da ekimenaren helburua.

Idiazabalen erroldatuta egotea, 60 urte beteta izatea eta eguneroko eginkizunetan laguntza behar izatea dira baldintzak. Zerbitzua astelehenetik ostiralera, goizeko 9,30etatik arratsaldeko 6etara eskainiko da. Izen ematea Udaletxeko Gizarte Ongizate sailean egin daiteke, asteartean, 14:00etatik 16:00etara

eta ostiraletan, 9:00etatik 13:00etara.

Argentinari laguntza

Udalak, aho batez, Argentinako Idiazabal herriari 12 mila euroko (2 milioi pezeta) laguntza berezia ematea onartu du. Argentinan bizi duten krisi egoerak, eragin zuzena izan du hango idiazabalarrengan. Herriko osasun zerbitzuan dituzten beharrei erantzuteko erabiliko dute dirua.

Laguntza hori jasotzeko, Argentinako ordezkari bat izan da Euskal Herrian. Dirua, eskura jaso nahi izan dute, Argentinan banketxeek duten egoera dela eta, dirua transferentzia bidez bidaltzea ezinezkoa zelako.

Musika Eskola

Udalak eta Ordiziako Musika Eskolak, datorren ikasturtean herrian egin ahal izango diren musika ikasketak zehaztu dituzte. Musika tailerra, hizkuntza musikala, kantua, pianoa, esku soinua, saxofoia, biolontxelo, zeharkako flauta eta txistua ikasteko aukera

izango da. Ikasturtea, irailaren 10ean hasiko da.

Odol emaileak

80 herritarrek eman zuten odola, ekainaren 18an Odol emaileen elkarteak egindako deiari erantzunez. 4 odol emaile berri izan ziren. Odol emaileen elkarteak gustura daude emaitzarekin eta parte hartu dutenei eta antolaketan lagundu dutenei eskerrak eman dizkie. Odola emateko hurrengo aukera urriaren 2an izango da.

Bolo txapelketa

Ekainaren 16an, Gipuzkoako Bolo txapelketa jokatu zen Idiazabalen. Gipuzkoa osoko 65 lagunek hartu zuten parte. Beteranoetan Zegamako Martin Retegi izan irabazlea. Emakumeetan, Itxaso Kuesta donostiarra. Gazteen mailan, Andoni Berasategi herritarra sailkatu zen lehendabiziko. Haurren artean, Donostiako Iosu Lazkano izan zen lehena eta Adrian Larrañaga idiazabalarra bigarrena.

Xabier Urteaga



Errotonda berria

Jeronimorenean, Segura eta Zegama alderako bidegurutzea ordezkaturako duen errotondako lanak aurrera doaz. Bide berria egin ahal izateko, Biona eta Biona Txiki etxeak bota egin dituzte. Bertan bizi zen familia, Pilarrenean Udalak duen pisuan dago.



Etxegarate

Diputazioak Etxegarateko lanak bukatzeko epea ekainaren 18an jarri zuen. Aste horretan, lanak bukatu ez, baina inaugurazioa urria bitartean atzeratzen dela jakinarazi du Diputazioak. Nafarroako zatia ere orduan irekiko dute. Diputazioaren esanetan, hilabete honetan bide berriko zati batzuk erabiltzeko moduan izango dira.

San Joanetan herritar sarituak

Plater tiraketa: Joxe Migel Aldanondo.

Arrantza txapelketa: Asier Izeta.

Atari eta balkoietako lore txapelketa: Atariak, 1. Nati Agirre eta 2. Agustin Legorburu. Balkoiak, 1. Dolores Aranzadi eta 2. Iñaxi Sarriegi.

Atsedeneko probak: Tokan, Joxe Luis Etxeberria; pote eta igel jokoetan, Eulajio Albisu.

Herri toka: Gizonezkoetan, Gregorio Artola eta emakumezkoetan, Mila Begiristain.

Koadrilen futbitoak: Robin zurrut.

Berrikuntzak eskolan

Opor garaia aprobetxatuz aste honetan hasita, zenbait obra burutuko dira Laiotz Herri es-



Igerilekuko arduradunak, Maider Arraiza, sorosleetako batekin.

takoa, denboraldiaren luzapena da. Herritar asko oporretan dagoela eta irailaren 8 arte izango da zabalik. Honetaz gain, tabernaren amaierako zatia hartuz, Osakidetzak eskatuta, sorosleentzako postu berezia egin da.

Igeriketa ikastaroa

Uztailaren 8tik 26ra, eguerdiko 12etatik 1era, 3 urtetik gorako haurrentzat. Irakaslea: Jokin Elkoro. Interesatuak igerilekuan edo udaletxean eman izena.

kolan. Goiko eskolan, irakasle gela egokitu eta ingeleseko gela berria egingo da. Behekoan, psikomotrizitate gela berri eta patioko zorua konponduko da. Lan hauek Hezikuntza sailak finantzatuko ditu.

Etkez etxeko lanerako ikastaroa

Gaia: 3. adinekoen gaixotasunak eta prebentzioak. Ikastaro emalea: Amagoia Muruamendiaraz medikua. Uztailaren 8tik 11ra, 17:00etatik 19:30era, Kultur etxean. 16 herritar daude izena emanda. Bestalde, uda partean etkez etxeko lanetan aritzeko interesatuak udaletxean eman behar dute izena.

Oxiña igerilekua Irailaren 8 arte egongo da zabalik

Ekainaren 26an ireki zen uda garairako igerilekua. Igerilekuko lanak egiteko herriko bi talde agertu ziren eta zozketaz, M. Jesus Larrera, Ainhoa Gonzalez eta Cristian Lermak osatutakoari egokitu zitzaion ardura. Nobedade nagusiene-

Segurak ere badu web orria

Zuzenketa nahiz gehiketaren bat egitea falta bada ere, As-te Santu ondorenetik, Segurari buruzko informazio zabalak aurki daitezke interneten. www.seguragoierri.net helbidera jota herriko hainbat

arlori buruzko azalpenak ageri dira, besteak beste, Segurako berriak, kokapena, herriaren ezaugarriak, udalategia, tradizioak eta festak, turismoa eta ostalaritza, kirola, gastronomia, kultura eta

aisialdia eta kultur etxea. Web orria osatzaren lana, udalaren inizatibaz, incotel enpresak burutu du. Berrikuntzak izan ahala, eguneratuz joango da informazioa.

Jokin Izagirre

Mutiloako festetako bi bola saioak eta sailkapen orokorra irabaziz hiru trofeo etxeratu

zituena Jokin Izagirrek ekainaren 29 eta 30ean.

Joseba Telleria



Bixente Campos gustura asko dago postetxe berrian.

Postetxe berria

Lan egiteko eta herritarrei zerbitzua eskaintzeko baldintza minimorik ez zuen betetzen postetxeak. Eraikuntza berean, atzetik izan ordez, aldamen batetik egin diote sarrera. Bixente Campos postariak lana baldintzatan egiteko aretoa egokitzeaz gain, baserriaren buzoi guztiak berri dira. Bulegoko mostroa jartzea bakarrik falta da. Gatu guztiak udalaren gain joan dira.



Neska-mutikoak eta begiraleak aisialdiko lehen egunean.

31 neska-mutiko aisialdian

Udalak antolatuta, uztailaren 1ean hasi ziren 19ra arte iraungo duten udako denbora libreko aktibitateak. Hiru taldetan (3-4 urte, 5-6 urte eta 7-11 urte) banatuta, jolasak, jokoak, irteerak, eskulanak eta kirolak praktikatuz, udan eskolako erritmoa ez haustea eta euskaraz aritzea dira ekimenaren helburuak. Goizeko 10etatik 1era, astelehenetik ostiralera, umetxean, bi frontoietan, igerilekuan, kultur etxean, liburutegian, parkean... ikusi ahal izango ditugu. 2tik 12 urte bitarteko haurren begirale lana Nagore Gonzalez, Elisa Ferreira, Ainara Goenaga eta Elizabet Izagirre herritarrek egingo dute.



Eguzki Berri saritua

Herriko ikastetxeko aldizkaria, Eguzki-Berri, izan da Euskaldunon Egunkariko "Xingola" gehigarriaren aldizkari lehiaketako aurtengo irabazlea. Hori horrela, Nairobitarrarekin Amazonia Txikira (Landak) joango dira asteburu dibertigarri bat pasatzera 5 eta 6. Mailako ikasleak.

"Xingola", aipatu egunkariak gaztetxoenei zuzendurik, larunbatero argitaratzen duen gehigarria da eta urtero aldizkari lehiaketa antolatzen du Euskal Herri mailan. Sariaren garrantzia ukaezina da, beraz.

Orijinaltasuna, irudimena,

txukuntasuna eta albisteak lantzeko eta aurkezteko modua izan omen dira epaimahaiak kontutan izan dituenak erabakia hartzerakoan. Izan ere, Eguzki-Berrin herriko nahiz bestelako albiste eta gai ugari landu dituzte urte guztiotan zehar. Esate baterako, azken zenbakian, sagardoari buruzko erreportaje zabala argitaratu dute, Urbitarte sagardotegiko nagusiari egindako elkarrizketa barne; Lizarrustiko aterpetxera egindako irtenaldiaren berri ere ematen digute eta, horiez gain, gainera, komikiak, txisteak, denbora pasak eta ikas-



Jesusa Etxeberria eta Julian Munduate omenduak

Ataungo Eusko Alderdi Jeltzaleak gerra aurretik alderdikide izan diren bi herritarrok omendu nahi izan ditu. Horretarako, Jesusa Etxeberria eta Julian Munduatek domina bana jaso zuten Euzkadi Buru Batzarreko lehendakari den Xabier Arzalluzen eskutik. Honekin batean, Bidebieta eta Toki Ederren egindako domina banatze ekitaldietan, presente izan ziren Gipuzkoako Buru Batzarreko lehendakaria den Juan Mari Juaristi eta herriko zenbait alderdikide ere. Zorionak Jesusa eta Julian!

Labur-labur

Azken asteotan hil dira Santiagone Txikiko Fe Reboiro anderea eta berriki, Etxeberri Haundiko Pedro Arrondo jauna. Doluminak sendiei.

Bide batez, Pedro Arrondo zenaren sendiak eskerrak eman nahi dizkie hiletara joan ziren guztiei.

leek egindako ipuin, olerki bertso eta marrazkiak argitaratu dituzte. 1,50 eurotako salneurrian, urtean hirutan kaleratzen dute aldizkaria.

63. aleraino iristeko ibilbide luzea eta lan ordu asko

eginak dira bai ikasle eta irakasleak ere, beraz, ongi etorria izan bedi sari hau lan horren eskergarri. Zorionak guztioi!

Agurtzane Bikuña



IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Merkealdia!

esposizio aldaketagatik

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurria

Mota guztietako arrotegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta

elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA



Kiroldegian udako kanpaina martxan

Udako oporrekin batera, eskaintza berezia antolatu du Antzizar kiroldegiak adin guztiei begira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin Uda 2002 kirol jardueren kanpaina antolatu dute. Guztien artean, garrantzitsuenetakoak ditugu, eskolameentzako antolatu diren kiroltako udalekuak.

Bi txanda desberdinetan izango dira uztailaren zehar. Adin bakoitzerako talde eta ekintza desberdinak izango dira.

- **1997-1998an jaioak:** Udaleku Txiki (igeriketa eta psikomotritizitatea).

- **1994-1996an jaioak:** Kirol udalekua (igeriketa, jolasak eta tenisa).

- **1984-1993an jaioak:** Eskaintza zabalagoa izango dute. Kirol abentura: eskalada, arkua eta piraguismoa. Kirol festa: igeriketa, tenisa eta jolasak.

Ikastaro bereziak ere antolatu dira: aerobica, igeriketa, tenisa, piraguismoa, txiki-fitnesa, gimnasia erritmikoa eta zaldiketa.

Gazte eta helduei zuzendurik, berriz, urtean izaten diren ikastaroez gain, zaldiketa, tenisa, piraguisimoa, eskalada, defentsa pertsonala eta arku tiraketa ikastaroak ere emango dira.

Antzizar kiroldegitik jakinarazten dute, irailaren 1tik aurrera kiroldegiko instalakuntzak erabili nahi dituztenek, uztailaren 31 baino lehen egin beharko dutela eskarera. Informazio gehiagorako deitu 943-887900 telefonora.

Estaligabeko igerilekuak

Irailaren 15era bitarte irekita izango ditu ateak estaligabeko igerilekuak 12:00etatik 20:00etara.

Nekane Altuna

554 eskaera Babes Ofizialeko etxebizitzetarako

Udalak bultzaturik, Indar lehen kokatua zegoen gunean eraikitza doazen Babes Ofizialeko 40 etxebizitza hauetarako 554 eskaera jaso dira. Etxebizitza hauek, Udalak, Beasain Lantzen, SA udal-sozietatearen bidez bideratuko ditu. Etxebizitza hauek erosteko hautatuak izaten direnek kooperatiba bat eratu beharko dute BOEko 40 etxebizitza hauek eraikitzeko.

Onartutakoen zerrenda jada atera dute eta Udalaren bulego orokorretako iragarki-taulan dago ikusgai. Uztailaren 4tik 15era alegazioak aurkezteko aukera izango da eta uztailaren 22tik 29ra, onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin betiko zerrendaren jendaurreko erakusketa egingo da. Notario aurreko zozketa publikoa, irailaren 16tik 30era egingo da.

Beasaindar gazteak Bolivia eta El Salvadorren

Beasaingo udaleko Ongizate sailak ematen dituen beka edo dirulaguntzei esker, bost beasaindar Bolivia eta El Salvadorren izango dira abuztua eta irailean. Jon Mateos eta Leire Irastorza Boliviara joango dira Taupadak ONGren bitartez. Roberto Alonso, Mikel Albisu eta Lierni Ormazabal, berriz, El Salvadorrerara joango dira. 28.000 euro eman zaie beka hauei.

Frantziako Tourrera Peña Belokirekin

Beasaingo Peña Belokik irteera bat antolatu du Frantziako Tourreko 11. eta 12. etapak ikustera joateko. Uztailaren 18an, Pau eta La Mongie artean egingo den txirrindulari proba ikusiko dute. Beasaindik uztailaren 17an irtingo dira arratsaldeko 3etan eta uztailaren 19an itzuliko dira. Joateko interesa dutenek izena eman beharko dute Basakana tabernan uztailaren 10a baino lehen.

Beasaingo futbol taldea mailaz jaitsi

10 denboraldi 2.B mailan eman ondoren, datorren denboraldian 3. mailan izango da Beasaingo futbol taldea. Torrelavegako Gimnastikaren aurka partida irabazi beharra zeukan mailari eutsiko bazion bainan binako berdinketa lortu zuten. Javier Mandiola izango da orain Beasaingo futbol taldearen entrenatzaile berria. Eibar B taldetik datorren entrenatzailea da.

Asier Mujika txapeldun

Asier Mujika txirrindulari beasaindarra Euskadiko txapeldun dugu junior mailan Alegian jokatu zen txirrindulari proban. Probintzia mailako lasterketetan aurrean dabilen txirrindularia dugu. Zarautzen jokaturako Gipuzkoako klasikan garaile eta Logroñoko klasikan bigarren postua lortu zuen.

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

Aholkularitza


ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi Kalea 15, behea BEASAIN

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak





Kontxako rallya Lazkaon

Kultura eta kirola uztartu asmoz, **Kontxako Nazioarteko rallya** antolatu dute. Rallya bere izenari men eginez, Donostian hasi eta amaituko da, baina bere ibilbidean, Lazkaotik ere pasako da abuztuaren 15ean. 40 talde inguru lehiatuko dira rally honetan. Donostiatik irten eta arratsaldeko 18:47 inguruan helduko dira Lazkaoko enparantzara. Iluntzeko zortziak inguru arte Lazkaon izango dira, jendeak autoak ikusteko aukera izan dezan.

Ordu horretan parte hartzen duten autoak, banaka-banaka irtengo dira Lazkaomendi alderuntz.

Kirol ekintzak

Baina egun hori iritsi bitartean, Lazkaon hainbat ekimen antolatu dira; uztailean Lazkaoko **II. frontenis txapelketa** jokatu da herriko frontoian.

Garagardo festa

Eta kirolaz blai, parranda nahi duenak, berriz, **garagardo festa** izango du uztailaren 11tik 14ra bitartean. Aurten goan Lazkaoko txirrindulari elkarteak antolatu du festa hau. Herriko enparantzan, garagardo ezberdinak dastatzeko aukera izango da asteburu honetan.

Kultur ekintzak

Kirola eta parrandaz gain, ekintza kulturalak ere izango ditugu aurtengo udaran. Lazkaoko Maizpide Euskaltegiak, Udalarekin batera, hainbat eta hainbat ekimen antolatu ditu: musika, ipuin kontalariak edo bertsoak, denetarik egongo da hurrengo bi aste hauetan. Lehen zita uztailaren 9an, asteartean izango dugu **Goierriko bertsolari gazteekin**. Gaueko 10etatik aurrera kantuan arituko dira Lazkaoko Euskadi plazan.

Beste musika klase bat



San Benito ikastolak Osasunkume saria jaso du

Ekainaren 25ean Tolosako Beotibar pilotalekuan egin zen Osasunkume festan, San Benito ikastolako 6.B ikasgelakoek Osasunkume sariaren lehenengo saria jaso zuten. Lehen Mailako Hezkuntzako 3. zikloan. Ekainaren 24tik 28ra, Gironako Can Matteu granja eskolara joan ziren sarituak. Osasunkume sariak, ikastetxeen artean banatzen dira, drogomenpokotasunaren prebentzioari buruzko proposamenik txukunenak aurkeztzen dituztenen artean.

San Benitoko ikasleek, egunkari moduko bat aurkeztu dute, argazki, irudi eta testu ezberdinez horniturik. Interneteko www.edex.es webgunean ikus daiteke lazkaotarren emaitza.

nahiago dutenek ordea, hila-
ren 11an **Anje Duhalderen kantaldia** izango dute, hau ere herriko enparantzan.

Uztailaren 16an, arratseko 9etatik aurrera **Txan Magoaren ikuskizuna** izango da, eta hurrengo egunean, asteaz-

kenean, berriz, **Koldo Ameztoi** ipuin-kontalariren saioa.

Eta guzti honi amaiera, herriko **Drindots** musika taldeak emango dio uztailaren 18an.

Oihana Sarasola



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

943 88 79 72

Senpere, 7 BEASAIN

ARAMAKO TABERNA

berriro zabalik!

Menuak

Asteburuetako menuak

Karta

943 888 953

Aramako plaza

ARAMA

Jende andana garagardo festan

Ehunka lagunak topo egin zuten aurreko asteburuan Beti Alai pilotalekuan Errugbi taldekoek antolatutako garagardo festan. Ostegunean hasi eta igandea bitartean iraun zuen festak eta antolatzaileen aurreikuspen onenak ere bete ziren. Iazko arrakasta ikusita kanpoaldeko pilotalekua ere erabili dute aurtengoan mahaiak jartzeko, baina hala ere jendea zutik ikus zitekeen larunbat gauean aulkiren bat edo noiz libratuko zain.

Eta hori dena garagardoa dastatu eta era berean saltxitxa edota txerri ukondoa jateko asmoz. 26 garagardo desberdin edateko aukera izan zuten bertaratutakoek. Pitxarra erosi, baita txarteltxoak ere eta eskatzera barrara. Denbora guztian horretarako egokia den musika ipinita bazegoen ere, ostiral gauean Brigantia talde beasaindarrak musika zeltiarra eskaini zuen eta jendeak gustura entzun zuen musika hau.

Errugbi taldekoak gustura ziren, beraz, 100 pertsonak lau egunotan jo eta su lanean aritu behar izanda ere, azkenean esfortzuak merezi izan duelako. Aurtengo arrakasta ikusita 2003an ere antolatze-

ko asmoa azaldu dute berriro ere antolatzaileek.

San Fermin Zozketa

Iristear dago uztailearen 8a. Honela, asteburua besterik ez zaizu geratzen Txindoki Tabernatik pasa eta zozketan parte hartzeko boletoak eskuratzeko. Orain arte saldutakoak kontuan hartuta ziur 60.000 boleto salduko direla aurtengoan ere eta jakin badakizue, zozketaren bitartez ateratako irabaziak San Jose zahar etxearentzat izango direla. Astelehenean egingo da zozketa eta bertan diru mordoska egongo da jokoan. Gogoratu boletoak 33 zentimotan daudela salgai (euro batekin hiru boleto) Etxezarreta kalean dagoen Txindoki Tabernan.

Santa Ana jaiak hurbil

Uztailean sartzearekin batera opor usaina eta festa nahiak begi-bistakoak dira. Koadriren bilerak, jai batzordea lanean, Txosna batzordea, mo-zorroak, danborradako entseguak... azken batean gainean ditugula 2002ko Santa Ana Jai Nagusiak. Uztailearen 19, 20 eta 21ean umeen txanda izango da eta helduek, aldiz,

Futbol txapelketako finala

Otsailean hasita hor aritu dira herriko 12 koadrila nor baino nor futbol txapelketarako finalerako txartela lortu nahian. Finalaurrekoak pasa den asteburuan jokatu ziren eta bertan Bustunmira taldeak E.R.Matxain Ileapaindegia hartu zuen mendean 3-1eko emaitzaz eta gauza bera eta emaitza berarekin egin zuen Badago taldeak Urbitarte Sagardotegiarekin.

Gauzak honela San Fermin egunean amaituko da XXIII. Lagunarteko Futbol Txapelketa. Igandean, beraz, goizeko 9:30ean hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida jokatu da eta 11:30ean final handia jokatu da: Badago - Bustunmira. Ondoren ohi bezala txapelketan parte hartu duten jokalariek guztiek pilotalekuan izango dute zita, bertan bazkaria izango baitute zain. Ondoren sari banaketa egingo da eta nola ez, herriko tabernariak ere bisitatzeko astia izango da.

ohi bezala 24, 25, 26 eta 27an izango dute egitarauaz gozatzeko aukera. Hurrengo alean izango duzue festei buruzko datu zehatzagorik.

Labur-labur

● **3 x 3 saskibaloia torneo:** Garagartza Plaza eta Enparantza Nagusia saskibaloia kantxa bihurtuko dira uztailearen 13an. 3 x 3 saskibaloia torneoaren hirugarren edizioa izango da oraingoa eta infantil, kadete eta helduek izango dute sariak eramateko aukera. Egun guztian zehar jokatu da neurketak.

● **Jakintzako jaiak:** ikasturteari amaiera emateko Jakintza Ikastolak jai berezia ospatu zuen ekainaren 16an. Pilota-

lekua eta arboleda izan ziren jai honen lekuko eta ikasle, irakasle eta guraso piloa elkartu ziren,

● **Saskibaloia Txapelketa:** futbol txapelketa igandean amaituko da baina bitartean saskibaloikoak aurrera darrai. Ekaina erdialdean eman zitzaien hasiera eta uztailearen 18an jokatu da finala. 24 talde ari dira lehian.

● **Tximista bidegurutzia:** Industriadara doan bidea zentzubikoa da berriro ere. Ur saneamendurako lanek bulztatu zuten norabide bakarrekoa izatea baina berauek amaituta lehen bezala jarraituko du hemendik aurrera.

Aitor Calvillo

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

THERMOMIX

Geure errezetak prestatzeko balio duen makina.

Ondorengo funtzioak eskaintzen dizkigu Thermomixek: birrindu, ehotu, haustu, maionesak egin, sorbeteak egin, harrotu, oliofrijitu xehetua, xehetu gabeko oliofrijitua, beharrezko kantitateak oretu, papilak...

MARIA ARDANAZ Tel.: 943 08 45 86
Bustuntza plaza, 4 - 5.A ORDIZIA

VORWERK

Lierniko erromeria, uztailaren 14an

Aurten ere iritsi zaigu ormaiztegiarrok Liernira erromerian joateko eguna. Ohi bezala, uztailaren bigarren igandean izango da, hau da, uztailaren 14an. Aurtengorako ere egitarau zabala prestatu da, jarraian adierazten den ekitaldiz beterik izango delarik. Guztioi gonbidapen zabala luzatzen zaigu aipatu erromerian egun ederra igaroz parte har dezagun.

Uztailak 13, larunbata:

15:30ean: Auzolanean Lier-

niko bide zaharraren garbitzea. Partaideei amaieran ogitartekoa eta edaria banatuko zaie.

Uztailak 14, igandea:

11:00etan: Salda beroa eskainiko zaie iristen direnei.

11:30ean: Liernira igoera mendiz.

12:30ean: Meza nagusia Lierniko amaren ermitan.

13:15ean: Haurrentzako jokoa Guraso Elkarteak antolatuta.

14:30ean: Bazkari herrikoa.



Arzak eta bere taldeak arku-mea txilindron erara prestatu du.

16:30ean: Auskalo animazio taldearen ikuskizuna. Haurrak ikuskizuneko partaide izango dira eta zuzeneko musikaz animaturiko giroa izango da.

18:00etan: Lierniko V. Toka txapelketa herrikoa Ormaiztegi herriarrentzako. Ira-

bazleak Mujika jatetxeak emango duen bi pertsonentzako bazkari baterako txartela jasoko du saritzat.

19:15ean: Sokatira lehiaketa herriko koadrilen artean. Irabazleek bi arkume jasoko dituzte.

Egunean zehar, herriko trititilariek alaituriko giroaz gozatzeko aukera izango da.

Aitziber Murua

Pako Eskitxabelen askatasunaren aldeko bizikleta martxa

Ekainaren 16an Pako Eskitxabel presoaren askatasuna eskatzeko bizikleta martxa burutu zen, Pako Herrira plataformak deituta. Donostiako Amara Zaharretik Legorretara bizikleta gainean aritu ziren zenbait donostiarr eta legorretar. Pako Eskitxabel bizi zen auzotik, jaioterriara hain zuzen ere. 40 bat lagunek hartu zuten parte martxan eta ondoren ekitaldia eta herri baz-

karia izan ziren pilotalekuan. Bertan, 100 bat lagun elkartu ziren.

Zorionak

Aurreko egunean, ekainaren 15ean, Pako Eskitxabelen urtebetetze eguna izan zen. Legorretarrek zorionak bidali nahi izan zizkioten plazan ateratako argazkiarekin, irailerako etxean izango denaren esperantzaz.



Goiko argazkian, herri bazkaria. Behean, Pako zoriontzeko argazkia.

Bela, V. Gazte Festak!

Bi aste baino gutxiago falta da hamaika arkakuxokume (eta ez hain kume) herriko festa herrikoienena saltsaz gozatzen ikusteko. Gazte Festak edo San Arkakuxoak dira, bai. Uztailaren 18an hasi, osteguna, eta hiru egunez, Zaldibin zeozer badela sumatuko batek baino gehiagok. Eta aurten gainera, bosgarrenak dira. Ez da ez, marka txarra! Tarte horretan denetik izango da: bideo emanaldia, Osinberdera irteera, euskarari buruzko kafe tertulia, Sasi pilotari txapelketako finala, herri bazkaria, sagar-dotegiko afaria...



Osteune 18: Falta dienak gogon

19:30etan: Txupinazoa. Arkakuxon jectsierea.

20:00etan: Ekitaldi/Omenaldie.

Ondoren, Herri Afarie plazan boka-dillok janez.

Ilunabarren, Bideo Emanaldie. Pasa dien urtetako gazte festetako piurak ikusteko aukera izango da.

Ostiela 19: Euskera, gure hizkuntza

10:00etan: Osinberdea irteera. Ordu beren, plazan haur eta gazteentzako korrika.

16:00etan: Euskarari buruzko Kafe Tertulia.

Atsalden: Sasi Pilotari txapelketako finala.

Iluntzen, Sukaldari txapelketa. Prepatu beharre-

ko menue: Entrante hotzak, entsalada (mixta, pastana, mariskona, rusa...), Mazedonia.

Ondorenen, Antzerki saioa.



Lanbata 20: Herri bat, Gaztetxe bat

13:00etan: Poteoa, trikitixa eta kale animaziokin.

14:30etan: Herri Bazkari mundiala.

Ondoren, Jokuk.

Jukok bukaotakon, Denok, denok mozo-rrotzea!!



21:30etan: Sagardotegi Afarie plazan.

Afalondon, Bertsolarik, txiste kontalarik...

Ondorenen, joku berezi-berezie.

Txamarretxeko festa

Uztailaren 13an ospatuko da artzain eta erreka-dero ugariren auzoko festa. Hauxe da egun horretako antolatutako egitaraua.

17:00etan: Herri jolasak

18:30etan: Goiztiri txaranga buruhandiekin, beko kaletik go-ra.

19:00etan: Iztueta dantza taldea saioa.

19:30etan: Toka txapelketa. Izen ematea: 19:00etatik

19:30etara: Urteroko usadioari jarraituz, Arrese jatetxeak eskainitako ardoa eta gazta zaharra zerbitzatuko da.

20:00etan: Bertsolariak. Andoni Egaña eta Sustrai Colina.

21:00etan: Afaria Arresenen. Txartelak bertan daude salgai.

22:00etan: Play-Back lehiaketa. Adi! Euskadi Gazteko aurkezleak izango dira bertan.

23:00etan: Erromeria. Jon Ansorregi eta Andoni Larrañaga trikitilariekin.

Euskal Herriko Raid txapelketa

Uztailaren 14an, igandea, Euskal Herriko Raid Txapelketa igaroko da Zaldibitik, Alarpe zalditegiak antolatuta. Raid-a zaldien erresistentzia eta abiadura neurtzen diren proba bat da. Luzera desberdineko probak dira, 80 eta 40 kilometrotakoak. Kilometro hauen artean, vet-gate izeneko kontrolak egiten dira, hau da, albaitariak zaldia-aren egoera fisikoa neurtzen dute, eta horren arabera, aurrera jarraitzeko aukera ematen diete zaldiei.

Zaldibiatik igaroko den raid probaren ibilbidea honako izango da: Anexo (Ordizia)-Lazkao-mendi-Amundarain-Lazkao Etxe- Arkaka-Intxustiko iturria-Koai-Amundarain-Lazkao Etxe (bide baztarretik)-Aierdi-Unanita-Olalde-Futbol zelaia. Futbol zelaian vet-game (albaitari kontrola) egingo da. Zaldiek hiru itzuli eman behar dituzte; lehenengo bietan Zaldibiko futbol zelaian egingo dira albaitari probak.

Pirinioetara mendi irteera

Gailurrerantz Kirol Elkarteko mendi sailak Pirinioetara joateko mendi irteera antolatu du uztailaren 20ko astebukaerarako. Pont D'Espagne-Gavarnie trabesia egiteko asmoa dago eta prestakuntza pixka bat behar dela diote antolatzaileek. Informazio zehatzagorako mendi elkarteko arduradunengana jotzea besterik ez duzue.

Bultziak abuztuan

Azken orduko ezustekorik ez bada behintzat, abuztuan bakarrik etorriko dira aurten ere euskara ikastera datozen bultziak. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) ez ditu zehaztu egunak, baina printzipioz, abuztuan datozela esan dute, nahiz eta, uztailaren amaiera aldera etortzea ere ez duten albo batera utzi.

Inaki Gurrutxaga-Saroi Jauregi

Pako Aiestaran Valentziako prestatzaile fisikoa: "Arlo fisikoa errendimenduan eragina duen faktore bat da, baina, ez garrantzitsuena"

Duela 5 urte Pako Aiestaran beasaindarra elkarriketatu genuenean Osasunako prestatzaile fisikoa zen. Garai hartan erabaki zuen Rafa Benitez entrenatzailearekin elkarlanean aritzea. Extremadura entrenatu, Tenerife 1. mailara igo eta aurten Valentziarekin Espainiako liga irabazi dute.

Azken bi denboraldietan emaitza bikainak lortu dituzue.

Lana ondo egin denaren froga da hori. Urte batzuk daramazkigu, gure ustez, gauzak ondo eginez eta urte batetik bestera hobetzen saiatuz. Sekretua, gauzak ondo atera arren, dena ondo egin dela ez pentsatzea da. Emaitza onak lortu direnean ere zerbait gaizki egin da, hori aztertu eta hurrengo urteari begira hutsuneak hobetzen saiatu behar da.

Urte hasieran kritikatuak izan zirenetan, baina, emaitzak gero ikusi dira.

Hori ezezagutzaren ondorioa da. Rafa Benitez entrenatzaile bezala ez zen ezaguna eta futbol munduan kurrikuluma-



Pako Aiestaran eta Rafa Benitez ondo ulertzen dira eta talde lan irekia lortu dute.

ri ematen zaio garrantzia gehien. Palmaresa baloratzen da eta hori erru handia da. Zenbait pertsoneri aukera emanez gero froga dezakete entrenatzaile lanerako balio dutela.

Zertan oinarritzen da Rafa Benitezekin duzun lotura?

1996az geroztik elkarrekin gabilta. Osasunaren ezagutua genuen elkar eta biok nahiko filosofi antzekoa genuela konturatu ginen. Ondo konplementatzen gara eta ondo ulertzen gara. Hori da zailena, ondo ulertu eta talde lan irekia lortzea. Gehienetan maila ezberdinak gehiegi finkatzen dira. Gu saiatzen gara maila berdinean egoten, nahiz eta lan-taldetik kanpo bakoitzak bere lana izan eta zaletu eta komunikabideei

begira bakoitzak bere ardura izan. Lana egiteko garaian denok berdin aportatzen dugu eta hori oso garrantzitsua da niretzat.

Prestatzaile fisikoa figura gehiago aintzat hartzen al da?

Guri ez zaigu gehiegi gustatzen prestatzaile fisiko hitza erabiltzea. Gu futbol teknikariak gara eta agian bakoitzak arlo batean espezializazio gehiago du. Baina denok saiatzen gara arlo guztietan aportatzen, bai arlo fisikoan, teknikoan nahiz taktikoan. Hori da gure sekretuetako bat. Nik entrenatzaile titulua dut eta entrenatzaile bezala lan egin dut eta Benitezek ere badu INEF titulua. Horrek gure arteko ulermena asko errazten du.

Arlo fisikoak zein garrantzia du futboleant?

Errendimenduan eragina duen faktore bat da. Baina ez garrantzitsuena. Hori bai, arlo fisikoa hobetzeak errendimendua hobetzen laguntzen du. Talde baten errendimenduan garrantzitsua da jokalarien kalitatea, baina baita ere oso garrantzitsua da taldean lortzen duzun kohesioa, bai jokoan eta bai emozional edo animikoki ere. Taldearen aldagelan lotura sakonak egotea garrantzitsuenetakoa da. Oso talde ona izan, baina beraien sentimendua ez badator taldearen helburuekin bat, ez dago zer eginik.

Alavesen sekretuetako bat hori dela esaten da.

Alavesek 5 edo 6 urte daramatza entrenatzaile berarekin eta azkenean berak filtratzen du taldearen filosofia. Talde batera iristean dagoen plantilarekin aurkitzen zara eta agian zuk 2 edo 3 fitxaketa egiten dituzu. Urtetik urtera filtroa egiten joaten zara. Honela ahalik eta gehien gerturatzat talde filosofia zure filosofiara. Niretzat hori da Alavesen sekretua.

Beste euskal taldeak, berriz, ez dabilta fin. Zer gertatzen da?

Errealaren kasuan, 3 denbo-

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INFRIMATEGIA

943 88 94 82

BEASAIN

raldietan emaitza txarrak errepikatzen direnean ezin da zortean pentsatu. Zortea puntualki badago baina epe luze-
ra ez du zerikusirik. Hor ondo egindako lana edo gaizki egindako lana dago. Erabaki txar asko hartu dira eta horren ondorio dira emaitza txarrak. Badirudi gauzak aldatu nahi direla eta espero dugu hala izatea. Ezin dugu pentsatu gauzak egun batetik bestera aldatuko direnik, denbora behar da.

Errealzalea al zara?


Bai, gaztetan Errealean jokatu nuen eta beti txuri urdina izan naiz. Haserre ere sentitu izan naiz Errealaren lan egiteko zenbait modu direla eta. Baina, profesional mailan sartzen zarenean, zure nahia beti profesionalki hobetzea da. Kasu honetan Valentzian egonik, kolore horien alde egin behar dut.

Futboleko izar bat ariketa fisikoak egiten jartzea asko kostatzen al da?

Hori pertsonaren arabera da. Badaude zenbait kirolari bere giza baloreak oso eskasak dituztenak. Eta badaude zenbait jokalar, izarrak izan arren, giza balore oso sakonekoak, beraiekin lan egitea batere zaila ez dena.

Bigarren mailatik lehenengora alde handia aurkitu al duzue?

Bai, batez ere jokalarren kalitatean. Horrek finkatzen du jokoaren maila. Kalitatea alde guztietatik begiratur, bai genetrikoki, bai teknikoki eta baita taktikoki ere. Eta alde-



rantziz uste badugu ere, askoz ere profesionalagoak dira.

Orain dela 5 urte Osasunako prestatzaile zinenen esan zenuen dezeptzioa eraman zenuela jokalarren profesionaltasunarekin.

Bigarren mailatik lehenengora horretan ere ezberdintasuna dago. Eta ez maila artean bakarrik, lehenengo mailakoen artean ere bai, nahiz eta jendeak uste noiz eta talde handiagoa profesionaltasun gutxiago dagoela. Nire esperientziatik, Valentzian oso jarrrera ona aurkitu dut. Jokalariek garbi dute zein den beraien lehentasuna. Beste zenbait taldetan, arratsaldez lana jarri edo zerbait proposatu eta

beti aitzakiak izaten zituzten. Valentzian jokalariek esaten dute hori dela beraien ogibidea eta beti lanerako prest daude. Horrek hasieran harritu egin ninduen, baina gero konturatzen zara zerbaitengatik iritsi direla dauden tokira.

Aurrera begira zein asmo dituzu?

Valentzian beste denboraldi baterako kontratua dugu. Momentuz bertan jarraituko dugu, baina futboleko lana emaitzen menpe egoten da eta ikusiko dugu zer pasatzen den.

Futboleko ez dago irizpide egonkorrik. Gaur oso ona zara eta bihar oso txarra zara. Hori da futboleko arazoetako bat. Bai entrenatzaile eta bai jokalarientzat. Jokalari bat ezin da pasa oso ona izatetik oso txarra izatera, jokalar hori bera dena da, bai gaur eta bai bihar.

Datorren denboraldian presio gehiago izango al duzue?

Nik uste dut gutxiago izango dugula. Iaz zenbait jende ez zuen gure gaitasunean sinisten.

Bai talde mailan, baita pertsona mailan ere, garrantzitsua da nor zaren, zer egiteko gai zaren eta zure lekua zein den jakitea. Valentziak aurten liga irabazi arren bere lekua zein den jakin behar du. Berez, badaude beste talde pare bat liga irabazteko motibo gehiago dutenak. Gero, lana eginez, hasieran finkatua dagoen hori aldatu daiteke. Valentzia ez da Madril edo Bartzelona bezala urtero-ur-

tero liga irabazteko hautagai.

Hurrengo denboraldirako gure helburua titulu bat irabaztea izango da. Iaz ere asmo horrekin abiatu ginen eta liga irabazi dugu.

Euskal talde batera etortzeagatik puskatuko al zenuke Rafa Benitezekin duzun lan harremana?

Ez. Hemendik atera nintzenean baloratu nuen eguneroko lanarekin gustura sentitzea eta nire garapena, niretzat nahikoa izatea. Hori Rafa Benitezekin ziurtatua dut eta beste talderen batean ez, entrenatzaile baten filosofiarekin bat etorri eta lanean gustura aritzea zaila delako. Hori Osasunaren ezagutu nuen, urtebete 4 entrenatzailearekin lan egin nuen eta denetik pasa zen. Hori ez da batere atsegina.

Eta Rafa Benitezekin etorriko zinateke.

Bai, ni Rafarekin edozein lekutara joango nintzateke eta nire ustez berak ere sentimendu berdina du. Orduan, zergatik ez? Baina ez da batere erraza. Azken urteetan ez Errealak ez Athletikek ez dute entrenatzaile espainiarrik izan, orduan garbi daukat ia ezinezkoa izango dela.

Europa aldera joango al zinateke?

Bai nire ametsetako bat Inglaterran entrenatzea da. Eta zergatik ez? Italiako eskaintza bat izan genuen, baina kirol aldetik ez zen oso interesgarria eta ez ginen joan. Hemendik aurrera ate gehiago izango ditugu zabalik.

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3
ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

musika

LAZKAO:

Uztailak 11, Anje Duhalde, Euskadi plazan, 22:00etan.

Uztailak 18, Drindots musika taldea, Euskadi plazan, 22:00etan.

MUTILOA:

Uztailak 6, Trakets musika taldearekin dantzaldia, 23:00ak aldean.

bertsoak

LAZKAO:

Uztailak 9, Goierriko bertsolari gazteak, Euskadi plazan, 22:00etan.

ZALDIBIA:

Uztailak 13, Andoni Egaña eta Sustrai Colina, 20:00etan, Txamarretxe auzoan.

antzerkia

ZEGAMA:

Uztailak 11, Ramon Agirre eta Joserra Senperenaren 'Ondo esan beharko'. Udal arkupeetan, 22:30ean.

erakusketak

ATAUN:



Uztailaren 14ra arte, Zahar-kinak erakusketa Auzoeta kiroldegian. 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

bestelakoak

LAZKAO:


Uztailak 16, Txan magoa, Euskadi plazan, 21:00etan.

Uztailak 17, Koldo Ameztoti ipuin kontalaria, Euskadi plazan, 22:00etan.

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lignae erakusketa, Igartza jauregian.

ZEGAMA:



Astebukaeretan, Ehungintza tailerraren erakusketa. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
Uztailak 6-7: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882938.
Uztailak 15-16: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 882628.

AKASTEK AKADEMIA

2002 UDA

Tailerrak: irakurmena, idazmena, matematika
Datorren ikasturterako prestaketa:
* Euskara, ingelera * Fisika, kimika
* Latina * Matematika
* Testu komentatuak * Maila eta gai guztiak
Unibertsitaterako prestaketa.
Unibertsitate maila
* Goierriko Unibertsitatea * Psikologia, farmazia
* Enpresaritza * Etab.

2002-03 ikasturterako matrikula zabalik
ikastekakademia@latinmail.com
http://usuarios.tripod.es/ikastek
943 160 120
Joan Iturralde, 5 BEASAIN



* Depresioak
* Harremanetarako arazoak

Pedro Jose Landa Gutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

* Beldurrak
* Antsiak
* Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

o s k a r b i

o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04 Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 34 BEASAIN kale Nagusia 25 ORDIZIA



Imajina al dezakezu Goierri... GOIERRITARRARik gabe?

Goierritarraren posta gastua ordaintzeko laguntza



hilean **euro 1**
 **Goierritarra**
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefonia: Adina: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobraturako dizkizugu zure kontu korrontetik

Etxebizitzak

salgai

➔ Ordizian etxebizitza salgai. 115 m². Duplexa. 3 logela, 30 m²-ko egongela, sukaldea eta 2 komun. 180.000 euro inguru. 605772822.

➔ Etxebizitza salgai Beasainen. Dena irekia. Erreformatu berria eta altzariekin. 943160977.

➔ Ataunen pisua salgai. Ekonomikoa. 943180106.

➔ Etxe eraiki berria salgai, Ordiziako Filipineta kalean. 90 m². 3 logela, 2 bainu, egongela eta sukalde jantzia. Garaje eta trasteroarekin. Estreinatzeko. 225.000 euro. 943027022.

➔ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

➔ Lazkaon etxebizitza unifamiliarra salgai. Terrenoarekin. 943888699 - 943086895.

➔ Ikaztegieta etxebizitza salgai. 107 m² eta garajea. Sukaldea, saloia, 4 logela eta 2 bainugela. 943084674 - 607085145. Iluntzetan deitu.

konpartitu

➔ Pisukide bat behar dugu Iruñean. Unibertsitatetik gertu. Izaskun. 653704551.

➔ CAFeko bi ingenierrak Beasaingo Oriamendi kalean dagoen pisu bat elkarbanatuko lukete. Bereziki banketxetako langile edo irakasleeetan pentsatzen da. 943027799. (20:00etatik aurrera deitu) - 456761030.

➔ Iruñean ikasle pisu bat osatzeko neska bat behar da. 605752095.

➔ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914090390.

errentan eman

➔ Apartamentua alokatzen da, Benicasimen (Castellon). Hondartza ondoan. 2 igerileku eta kirol instalakuntzak. Gehienez 4 pertsona. 678929221.

➔ Laredon apartamentua alokatzen dut, hondartza ondoan. 943795280 - 656717745.

➔ Jacan apartamentua alokatzen da, igerilekuarekin. 943216684.

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948539381.

Lokalak

salgai

➔ Ataunen lokala salgai. 943180106.

➔ Beasainen lokala salgai edo alokeran. 2 pisukoa. Bakoitza 55 m²koa. Obra egin berria. 943889089.

Pabilioia

salgai

➔ Beasaingo Katea auzoan (17. poligonoa) pabilioia salgai. 170 m² eta entreplanta. Aldagelak eta elektrizitatea. Altuera ona. 943027065.

Negozioa

alokairuan eman

➔ Jatetxea alokatzen da, jubilazioagatik. Bezera finkoa. Errendimendu ona. Pertsona arduratsua eta esperientziaduna eskatzen da. Informazio pertsonala. 676049931.

Bestelakoak

salgai

➔ Karabana salgai. Oso egoera onean. Abantzearekin. 943806123.

➔ Erriberriko edo Oliteko kanpinean dagoen movilhoma salgai. 6.000 euro. Aseguratua. 943884040.

➔ Esne tankea salgai. Alza Laval etxekoa. 200 litrokoa. 943884502 (eguerdi edo iluntzetan deitu).

➔ Gurdi denda salgai. Prezio interesgarria. 943885271. Iluntzetan deitu.

➔ TSW Evo-r llantak salgai. 16 ". Opel Astrarenak. Bridgestone 205-50-16 kubiertak ere bai. 943187585 - 943801811.

➔ Astra GSi 16 V edo Astra GSi-rentzat Blis-tein amortiguadoreak eta eibach muelleak salgai. Oso denbora gutxi dute. 70.000 pezeta. 636070874.

➔ Gurdi-denda salgai. 3 logela eta abantzea. 943887122.

➔ Bi enziklopedia bilduma salgai: Euskara batua (3 tomo) eta Jakintza Bideak (5 tomo). 943882467 - 626610384.

Ibilgailuak

salgai

➔ Yamaha Enducros. 250 cm³ motorra salgai. 94. urtekoa. 400.000 pezeta. 617970088.

➔ Peugeot 306 TD familiarra salgai. 90 zaldi. 4 urte ditu. 943888699. Txemari.

➔ Mercedes Vito furgoneta salgai. Lo egiteko ekipatua. 629372199.

➔ Suzuki RGV 250 motorra salgai. Konpondu berria. Prezio onean. 607088769.

➔ Quad Yamaha warrior 350 motorra salgai. 4 gurpilekoa. 98. urtekoa. 943187585 - 943801811.

➔ Montesa Gota 315R motorra salgai. 99 urtekoa. Egoera onean. 943766401 605712473.

➔ Yamaha XT-600 Trail motorra salgai. SS-AJ. Egoera onean. 943180461.

➔ Kawasaki GPX-600 motorra salgai. Egoera onean. 943766401 605712473.

➔ Honda CBR 600F motorra salgai. Oso egoera onean, ongi zaindua. 93. urtekoa. 653720774.



➔ Gas Gas Jt 32 motorra salgai. 350 m³. Oso egoera onean. 285.000 pezeta. 606206157.

➔ Opel Omega 2.5 TD salgai. Ondo zaindua. 12.000 euro. 619750314.

➔ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. L-U. 686261188 - 943806022 (Patxi).

Animaliak

Opari

➔ Bi hilabeteko katakume politak opari. Ardua handiko pertsoneri. 943888171.

Lana

eskaerak

➔ Idiazabalen emakume edo neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 678724785.

➔ Pertsona euskalduna behar da, interna egoeran. 943651332 - 658707200.

➔ Astebukaeretan lan egiteko neska zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperientziaduna bada, hobe. Kotxea beharrezkoa. 943880044.

➔ Beasainen neska edo emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. 943086590.

➔ Pertsona euskalduna behar da tabernan lan egiteko. Esperientziaduna bada hobe. 943886577 - 943160205.

➔ Sagardotegi batean bi langile behar dira: sukaldari laguntzaile bat aste guztirako eta zerbitzari bat astebukaerarako. 943882049.

➔ Hortz klinikako laguntzailea edo hortz higienista behar da. Esperientziaduna bada hobe. 943889287.

➔ Ordiziako talde batek abeslaria, baxua eta tekla-jolea behar ditu. Ezinbestekoa jotzeko

gogoa izatea. Fear Factory eta Sepultura taldeen moduko musika egiteko. Mikander. 636932974.

➔ Gizonezko bat behar da beste gizonezko baten garbitasunez arduratzeko. Astean behin. Hileko 60,10 euro (10.000 pezeta). 943084202.

➔ 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Lazkaon. 943161019.

eskaintzak

➔ 19 urteko mutila, edozein lanetarako eskaintzen da, udan. 637781384.

➔ Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 606598100.

➔ 20 urteko neska gazteak umeak zainduko lituzke astean zehar (Beasainen ahal bada). 649123591.

➔ 21 urteko neska eskaintzen da udan tabernan edo dendan lan egiteko. 943160181 (arrazaldez deitu).

➔ 23 urteko neska esperientziaduna eskaintzen da, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 652767686

➔ Edozein lanerako mutila eskaintzen da. 943430640 - 639983891.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

DISEINATZAILE-PROIEKTISTA

Bilbon. Erref. 84071/3

GERENTEA

Donostialdean. Erref. 81862/3

PROIEKTU NAGUSIA

Bilbon. Erref. 84073/30840/2

HONDAKINEN TRATAMENDU TEKNIKARIA

Bilbon. Erref. 84074/4

GESTORE ENERGETIKOA

Bilbon. Erref. 84075/4

Victor
Zatetxea

943 18 00 33

943 18 00 84

ATAUN



Ordiziako Urdanetako haurrak, 1987an

1983an eta 1984an jaiotako ordiziarrek dira argazkietakoak. Beraz, 3 eta 4 urte zituzten garai hartan.



Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera:

Maider Arano, Sandra Rodriguez, Juan Luis Padilla, Arkaitz Arantzegi, Aimar Arantzegi eta Nagore Etxabe.

Beheko ilaran: Andoni Jauregi, Aitziber Otegi, Izaskun Urdangarin, Iker Garate, Aitziber Alonso, Aimar Saldias eta Ana Sevilla.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Adrian Leon, Arkaitz Arantzegi, Vanessa Cid, Jon Garikano, David Ramos, Zuriñe Otaegi, Erika Hernandez, Xabier Jauregi eta Raquel Martin.

Beheko ilaran: Matxu (Irakaslea), Mikel Etxarri, Ruth Tejeida, Lorea Soto, Sheila Gorrindo, Estefania, Josu Ramirez, Mikel Martin, Ivanka Bahamonde eta Beatriz Bureba.



ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



- × LEIHOAK, ATE-AK eta abar
- × ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

KAFEA TXIGORTZEN DUGU



KAFE eta TE denda

Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA

AMEBI



Sagardotegia

© 943 16 25 23

Zubierreka,9

LAZKAO

**Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak**

...



**Pintura
Teilatuak
Tximiniak**

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



**Tel. eta Faxes: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288**



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO
toldosagustin.com e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



Kontzesionario berri hau leku estrategikoan dago, gure herrialdeko edozein lekutatik erraz iristeko.

EUROLAN 4x4 jaio da Kontzesionario kontzeptu berria

**Gipuzkoako automobil mundua, eta zehazki
todo terrenoen sektorea, zorioneko dago.**

**EUROLAN 4x4. Motor munduan
kontzesionario kontzeptu berria.**



Kontzesionario berri hau Hernaniko Jau-regi auzoan, Galarretako erretondaren ondoan, kokatua dago, helburu bakar baten gain pentsatu eta eraikitako eraikuntza batean: gure herrialdeko kontzesionario kontzeptu berriaren erreferentzia puntu izatea.

**«Gure herrialdeko
kontzesionario kontzeptu
berriaren erreferentzia puntu
izatea».**

EUROLAN 4x4 nortasun handiko eraikuntza handi eta argitsu batean dago. Bereziki zerbitzu moderno, integral eta lehiakorra eskaintzeko diseinatua, gero eta esigenteagoa den herritarren beharrei erantzuteko.

Kontzesionarioaren goiko solairuan ibilgailu berrien erakusketa eta bulego komertzialak daude. Espazio zabala da, Land Rover todo terreno guztien gama perspektiba guztietatik gozatzeko.

Beheko solairuan tailerra dago. Sektore honetan hain garrantzitsua den azken aurrerapen teknologikoak dituen tailer modernoa. Garantia guztiak eskaintzen dituen zerbitzu eskusiboa.

**«EUROLAN 4x4 nortasun
handiko eraikuntza handi eta
argitsu batean dago.»**

Gainera, **EUROLAN 4x4** erreferentzia bihurtuko da, bezeroenganako arretagatik. Langile guztiak, bezeroen beharrei erantzuteko burubelarri ari dira. Ahalik

eta azkarren kalitateko zerbitzua eta tratatu eskusiboa eskainiz enpresako arlo guztietan.

Azken batean, gipuzkoar guztiok dagoeneko goza genezake, gugandik oso gertu, autoen munduan iristear daukagun kontzeptu berriaz:

EUROLAN 4x4.

